



# anaitasuna

1977.EKO URRIAREN 1EKOA 348. ZENBAKIA 35PTA

**U.C.D.ek:  
NAVARRA  
EZ DA  
NAFARROA**





## *Has zaitetz gutaz bestela pentsatzen.*

Gurekin harremanetan ari diren guztiei gauzak ikusteko beste era bat eskaini nahi diegu, tratuetarako modu berri bat, eta zerbitzu osoagoa ere bai. Geroak jadanik orain egiten dizkigun eskabideetara egokitu nahi dugu geure jarrera. Horrexegatik geure buruari aurreranzko proiektio bat jarri diogu helburutzat, orain arteko aurrerabideak izan garen baino hobekak izan gaitez. Guk guztiontzat hobe izango den etorkizuna moldatzen segitu nahi dugu, eta hori gaurdanik egiten hasi beharra dagoela ongi dakigu. Geroa hementxe dago eta.



CAJA DE AHORROS  
**VIZCAINA**

*geroa hementxe*



# PRAKA GABEKO UDAZKENA

Poz gaitezen, euskaldunok! Geure parlamentarien buruhauste eta ahalegin kontaezinei esker, anitz gauza lortu ditugu eta: Autonomiaurreko gobernurako projektua eta unibertsital barruti baskongadoa.

Betiko mihi gaiztoek, noski, Nafarroa bere baitan ez daukanez gero, hori onhartzina dela esanen dute, baina utikan! Hobe dugu zertxobait izatea ezer ez izatea baino. Eta nafarrei doakienez, hor konpon Mari Anton! Konforme ez badaude, beraiek protesta dagitela!

Autonomiaurreko gobernurako projektua, halaber, betiko txotxoloen ustez, Ekainaren 15ean HERRIAK "demokratikoki" aukeratuak, hauteskundeetara presentatzerik izan ez zuten beste alderdiekin inolako harremanik ezan gabe, moldatu, gisatu eta gatz-biperztatua, despotismo ilustratuaren exenplurik bikainenetakoa litzateke.

Botereak eta botere izan nahiak itsutzen duela ezin argiro dakusagu orain. Beraiek alde aurrez "ezdemokratiko"tzat kalifikatu zituzten hauteskudeetan lorturikoa, orain, nola edo hala, gorde, iraun erazi eta betikotu nahi dute, horretarako orain arte faxista nabariak zirenen bide berberak erabliiz. Edozein oinharri, edozein hastapen, edozein ideia, alde batera zokoratzeko prest ditugu, dela demokrazia, dela Hego Euskal Herriaren gutienezko nazional eremua, dela lotsa bera ere. Berorien posibilismo famatua, maximalista omen garenongandik iheska, minimalismorik minimoenera amildua da jadanik. Madrilek amuan jarritako beita irentsia dute, eta berorren zaporeaz, antza, zoratu.

Beldur izatekoa da, noski, bide horretan abiatu garenez gero, autonomiaz ere 1936.eko pastela bera ez ote diguten onhartuko, bai eremuan eta bai autonomi ahalmenetan ere. Denborak esanen.

Ipar Euskal Herrian, frantses gobernu zapaltzaileak bere aspaldidandiko ethnozidio lotsagabearen beste froga bat agertu digu oraingoan, Donapeleuko ikastola hertsiz. Agintari frantximenten ustez, ikastola horrek frantses hizkuntza irakasteko asmo fidagarririk ez zuen. Guk beste galdera egin nahi dugu: Fidagarriak izan al dira, dira eta izanen al dira frantses école nationalek Euskal Herrian euskara irakasteko orain arte azaldu dituztenak? Hortik hasi beharko litzateke galdezka, kolonialista zerriok!!

Ekonomi krisisa ere ganean dugu. Euskal Herrian ere bai. Eta horren errua ez dago, batzuk aker bekatari gisa agertu nahi dizkiguten "iraultzarako zergetan". Zenbait entrepresa vascotan ez dute euskal langilerik hartu nahi, kanpokoak baizik. Hemengoak politizatuegiak omen daude, bihurriegiak dira, esaneko txarrak. Hobeak dituzte, noski, iraultza sozialista egiteko azken pausoa PSOeri botua ematea dela oraino uste dutenak. Ugazaba horiei, faxismopeko urte beltzetan bere "euskal" asmo "abertzaleak" hain garbi erakutsi dizkiguten horiei, jakina, inolako zergarik jarri behar ez zaien arazo berberagatik, geurean ekonomi krisisik izan ez dezagun, geure langileria ere, otzanago, esanekoagoa, beharginagoa eta bere eskabidetan apalagoa izateko eskatu beharko dugu, horrela "euskal" kapitalistak ikara eta uxa ez daitezen. Hemendik aurrera prakak etxean utzirik ibili beharko dugula, adiskideok.

Panoramika nigargarri hau pixkat alaitzeko, ordea, EGIN egunkariaren irteera —azkenik!— izan dugu. Ongi etorria, lagunok!

# EUSKAL HERRIAN

## LABURKI


### FORUGABEKO DIPUTAZIO FORALAREN FORUGABEZIA

Iberduero aurrera doa bere bidean. Beti bezala, berriro ere Administralgoaren semaforoa berde ageri zaio.

Guztion belarrietara heldu denez, Barasordako zentrale nuklearra (Lemoizekoa) parkerako eta nekazaritzarako planifikaturik zeuden lurretan eraiki da. Diputazioaren onespenerekin gainera.

Jadanik ia eginda dagoen zentrale hau eraikitzeko, industrarako lurak behar ziren. Beratako lurren kalifikazioa desberdina zen, baina tira, laster asmatu dute konponbidea: Eskualdeko plangintza aldatu eta kito. Lurren kalifikazio juridikoa aldatu eta buruhausterik ez. Horrela, Diputazioak ahobatez azalduko oneritziatz, Lemoizeko zentrala legezatz bidean jarri nahi dute.

Hala ere, hipokresia ez da horretan mugatzen. Jarrera hau aukeratzean, Jaunik gabeko Bizkaiko Forugabeko Diputazio Foralak honelako eranskin hau gaineratu du: "sin que ello suponga manifestación de criterio alguno sobre la conveniencia o no



de la instalación de centrales nucleares". Zer? Aurrera jotzeko gogorik dago, ala?

Alferrik izan da, hainbat eta hainbat kontrako sinadura eta txosten arrazonatu aurkeztea; alferrik izan da manifestapen izugarriak egitea. Zentralea aurka gaudenoi, hertsu egin zaigu atea. Iberduero ordea, erraztu eta lautu egin zaio berriro bidea. Berriro ere. Baina trankil egon! Horrek ez du esan gura, zentralei buruzko eritzi konkreturik agertzen dutenik. Tira, tira. Ardillarruz jantziriko otsoak, beti otso.

Ramon Garai

### BETI BEZALA

Euskal Itsaalde ez-nuklearraren defentsarako batzordeak prentsaurreko elkarrizketa batetara deitu gintuen 1977-IX-15ean. Bertan Bizkaiko Diputazioak harturiko erabaki baten berri eman ziguten: Diputazioak Barasordako zentralaren inguruko lurren kalifikazio juridikoa aldatzeko erabakia hartu du. Lehen parkerako eta nekazaritzarako ziren lurak, orain industrarako izan daitezzen nahi dute: Zentralak nuklearraren ilegalitatea legezatu nahi dute.

Erabakia "erdi traizioz" hartu dela esan daiteke, Abuztuaren 11n eginiko batzarrean erabaki baita, hots, jenderik gehiena oporretan zegoela. Horren aurka inpugnazioak aurkeztu zituzten elkarteek ordea, ez zuten ezer jakin irailaren 5erarte. Nonbait, ez zegoen presarik. Honela, ez zaie inolako kasurik egin Mungia, Lemoiz eta Lekeitioko komunitate gehienei, Euskal Herriko Arkitektoen legio Ofizialari, Bizkaiko hogeita bederatzita famili eta Haurzo Elkarteri, hainbat mila pertsonaren sinadurei, ... Nori egin ote diote, ba, kasu? Ikusi-makusika bukatzen da ero. Ala ez?

Prentsaurrekoan zabalduriko komunikatuan Euskal itsaalde ez-nuklearraren defentsarako ba-

tzordekoek gogorki salhatzen dituzte Luis Martin-en deklarazio batzu. Jaun hau Diputazioko Hirigintza arloko buru da, eta La Gaceta del Norte 1977-VIII-27an agerturiko elkarrizketa batetan mehatxu antzeko hau zabaltzen du zentralearen inguruko herrien aurka: "El paralizar las obras de Lemoniz supondría graves responsabilidades económicas que Iberduero podría exigir. Responsabilidades económicas que los municipios afectados no podrían soportar ni aunque vendiesen al pueblo con los habitantes dentro". Dirudienetz jaun honek ez du legea ongi ezagutzen. Beldurra zabaldu nahi ote du? Zertan azaltzen da Iberdueroren defentsan?

Martin jaunak jakin dezan, Lemoizeko obrak probisionalak dira —beste baimenik ez baitute— eta beraz, demoligarraik izan behar dute. Honelako kasuetan, legeak agintzen duenez, Iberduerok ez du indemnizaziorako ezkubiderik. Honelatan, ba, Lemoize eta Mungiako udalek ez lukete txakurtzirik ere ordaindu behar.

Egia esan, gauzak daramaten abiatzen, zentrale nuklearraren kasuan, jadanik ez gaitu ezerk harritzen. Trapu zikin gehiegi dago, harriturik gera gaitzen.

J.R. Bilbao

*Predikurik onena exenplua da. Egizu euskara.*



## IKURRINAREN KALEA

Faxismopeko urte luze eta zoritxarreko hautan gure Herrietako kaleen izenek erdaraztapen imperialista argia pairatu behar ukan dute. Gure nazioaren kontrako pertsonaia eta egun nazkagarrienen izenak, hain zuzen, (Mola, Franco, 18 de Julio, Balparda...) edonon jarri zizkiguten, garaileek beren zapalkuntza, galdu genuenoi, egunero gogoratzeko.

Ordu berriak datoz baina. Laster, aurten bertan, udal hauteskudeak izanen ditugu eta horien ondoren Herriak libreki (holaxe espero dugu, eta ez Ekainaren 15ean bezala) aukeraturiko ordezkariak gure herri eta kaleetako kutsu faxista eta erdarazko guztiak kendu ahal izanen dituzte. Zenbait tokitan, Oinatin kasu, izen faxisten orde, lehenagoko izen jatorrak eta, kale berrietan, Herriko seme erorienak proposatzen ari dira.

Nik neuk, eta Bilborako, proposamendu konkretu hau egin nahi nuke hemendik, egokiago zatekeen beste nonbaitetik ez egiteko esan didatez gero. Gaur erdaraz Calle Correo deitzen dena (euskarazko Posta Kalea tradizioz gabeko itzulpen berria da) IKURRINAREN KALEA jartzea, hortxe kulunkatu baitzen lehenbizikoz, 1894.eko Uztailaren 14.ean, Sabino Aranak lehenik Bizkairako asmatu zuen eta gero gure nazio osoarena bihurtu zen bandera heroikoa. Kale horretan, nonbait, behiala postetxe bat izan omen zen eta hortik datorkioke, dirudienez, gaurko erdal izena. Oroitzapen inportanteagoa da, ordea, bat ere zalantzarik gabe, ikurrinarena.

Idea hor dago. Hurrengo udalak eta bilbotar guztiok dugu orain hitza.


Xabier KINTANA

## EIBARREKO HERTZAINAK

Eibarreko udal polizien automobiletan, HERTZAINA izena irakurri ahal izan dute aspalditxuan eibartar guztien begi poztuek. Txaloak merezi ditu horregatik, gure ustez, Eibarreko Udalak. Akats bat dago, ordea, hertzain horietako batengana joatean berehalaxe antzematen dena: —Aizu, esango al zenidake non dagoen... — Perdone, pero yo no sé vasco. Zera, oraingo hertzain berri hauek lehenagoko polizia eta goardia zaharren itxura bera dutela.

Ondorioa: ez da aski izena aldatzea, batera izana bera ere aldatzen ez bada.

Xabier Armendaritz



## EUSKARAZ IKASTEKA DEBEKATZEN DU PREFETAK

Lehen mailako ikastola bat (sei urtetarik goiti) zabaldu da Donapaleun (Nafarroa Beherean). Hara Zuberoako haur batzu ere joaten ziren. Baina egun hauetan irakaskuntzako inspektoreak hura debekatu du. Prefetak bermatzen du erabaki hori.

Euskaraz irakastea debekatzen digu beraz prefetak. Zer eskubide? Bi hitz datozkit mihi gainera: ethnozidiodia eta jazarkundea.

1. Zer da ethnozidiodia? Odol ixurtzerik gabe egiten den genozidiodia. Hori da prefetaren bidez Pariseko gobernua egiten ari duena. Euskal arima hilez, Euskal Herria digu hiltzen. Gizonaren aurka doa, ONUren aurka doa, UNESCOren aurka doa, Europako Hitzarmenaren aurka doa, Herriaren moral guztiaren aurka doa prefetaren debekua.

2. Jazarkundea da erantzun bakarra. Ez jauna, hain segur prefetaren aitzinean, eskolako haurrak bezala baitira. Baina jende xehea bai, jazar daiteteke, zerbait xuxen jakinez geroz, zeren, Rosa Luxemburg-ek zioen bezala —eta ez zen hau abertzalea, baina ni abertzalea naiz, eta are gehiago erran dezaket— diru-zapalketaren aurka jazartzen baldin bada, arrazoi osoarekin herriak askoz ere bortizkiago arbuatzen du arimak jasanikako zapaketa. Eta, hain zuzen, izpirituaren harmak dira lehen-lehenik hartu behar ditugunak.

Euskal Herri osoari eta munduko izpiritu libre guztiei dei egin diezaiegun oraindik, eta goazen bada burrukara!

J.L. DAVANT  
Zuberoako euskaltzaina

*Burruketan harmak garaile  
Gerran kultura garaile*

## EUSKARA ETA POLITIK ALDERDIAK [3]

### KARLISTADAK ETA EUSKARA

Karlisten gerratean, hots, Haro modernoetako askatasun nazionalaren aldeko gure lehendabiziko burrukan, euskarak, soldadu gehienek hizkuntza bakarra zen aldetik, garrantzi handia zeukan. Izan ere, begien bistan dago, euskaraz ez bazen, ez zatekeela posible izanen jende haik gerrarako berotzea. Garaiko bertsolariak ongi jakin zuten adierazten orduko herri sentimendua: "...lehengo legerik ez utzi/Hoieri firme eutsi/nahiz hanka bana hautsi/Jaioko dira berriak/Gu gera Euskal Herriak.

Sasoi hartakoxea da, halaber, gure hymno nazionala, Iparragirrenen eskuz haldu zitzaigun kantu unibertuala: Gernikako arbola.

Ipar Euskal Herriko parlamental politikan euskara propaganda egiteko erabiltzen zela ba dakigu. Horrela, Etxahun zuberotarrak bere herkide Augustin Xaho ezkertiarri bertso batzu egin zizkion beronen diputatu-kandidaturaren alde: Musde Xaho, behar düzü, aldi huntan kargin sarthü/ Bestela Uskal Herri hunek, behar dü düpe baratü/ Behar beittüke, aberatsen injüstizier pharatü (Euskara batu-an: "Xaho jauna, orain behar duzu karguan sartu/ Bestela Euskal Herria enganiaturik da geratuko/ Aberatsen injustiziaz geldierazi behar baititu")

### NAZIONALISMO MODERNOA EUSKAL HERRIAN

Nazionalismo modernoa Frantziako Erreboluzioaren ondorioa da European, eta beronen formula-pena honetan bil daiteke: Ezaugarri komun batzu (bizi eremua, hizkuntza, histori eta kultur kidetasuna, erlijioa, arraza...) zeuzkaten jendeak orok nazio bat osatzen dutela, eta nazio bakoitzak bere Estatu propioa eratzeko eskubidea duela.

Lehen partea, hau da, nazio bat osatzen dutela, ba zekiten aspaldidanik euskaldunek. Bai Etxaparek, bai Leizarragak, bai Joanes Etxeberri Ziburukoak, bai Axularrek eta bai Poza lizentziatuak, beste askoren artean, aintzinan aldarrikatua zeukaten beren eskribuetan hori. Baina hortik segi zitekeen bigarren partea ez genuen XIX menderarte ikusi. Eta izan ere, euskal nazionalismoa, euskaldunok geure etorkizuna eta arazoak ongien konpontzeko Euskal Estatu propioa behar genuela planteiatu genuenetik sortu zela esan dezakegu.

Planteiu nazionalista hau lehenik egin zutenak

iparraldean Augustin Xaho eta hegoaldean, lehengoko beste batzuren ideien synthesisa eginez, Sabino Arana Goiri ziren (1).

### HIZKUNTZA NAZIOAREN OINHARRIAN

Nazioek beren nortasunaren ezaugarriak besteekiko gonbaraketatik ateratzen dituzte, hots, ezberdintasunetik. Eta jendeen arteko diferentziarik nabariena (koloreaz aparte) beren hizkuntza gertatzen da. Ez da harrigarri, beraz nazionalismoak hizkuntzan naziotasunaren pilare sendoenetako bat ikustea. Hori, bestalde, Euska Herrian herri sen eta tradizioaz bat zetorkigun, gure nazioari Euskal Herria (=Euskararen Herria, Euskaraz mintzo den Herria) jarri zioten euskaldun zaharrek hizkuntza jo baitzuten, halaber, nazional batasun eta kidetasunaren elementu nabarientzat. Holaxe ulertu zuten arazoa, gainera, bai Xahok, bai Ullibarri arabarrak eta bai bizkaitar diputatu askok ere, euskararen nazional garrantzia azpimarkatuz. (2)

(1) Haren jarraitzaile batzu, maisuaganeko estimazio itsuaz eta hari meritu osoa eman nahirik, eztabaitzen saiatu (eta oraino saiatzen) dira Aranaren aurreko euskal giro nazionalista. Eta hori, gure egiazko historia faltsutzeaz gainera, Sabino bera nolobait mespreziatzea da. Aurrekoen lana sintetizatzean eta zabaltzean egin zuen lan IZUGARRIA berez asko eta sobera da Sabino Arana Goiri gure Herriko pertsonaia politikorik inportanteenetako bat-zat Historian betiko gera dadin. Besteen merituak ezkatzean, ba dirudi zenbaitzu beldur izan direla, haik jakinez gero, Sabino zokoraturik geldituko ote den.

(2) Alfontso Irigoyenek, bere Gernikako batzarreak eta euskara (3)ean, ikus ANAITASUNA 347. zenb., datu oso argigarriak dakartza sasoi bizkaitar nazionalistez. Gogora dezagun, kasu, 1864.ean, Alejandro Rodriguez, Angel Maria de Ventades eta Juan Antonio de Menchaca-k Gernikako batzarrean egindako proposamendua: "...que la Ilma. Diputación proceda inmediatamente al establecimiento de una cátedra de Lengua Vascongada en el Colegio de Vizcaya, á fin de secundar eficazmente los patriótricos esfuerzos del P. Fr. José de Uriarte, de D. Pedro Novia de Salcedo y de otros doctos vascongados que trabajan por el mantenimiento y la perfección de nuestra lengua materna, teniendo sin duda muy presente el axioma de ALLI DONDE CONCLUYE LA LENGUA DE LOS PUEBLOS CONCLUYE SU NACIONALIDAD". Urtebete geroago, 1865.ean, Sabino Arana jaioko zen Abandon.



## VIAJE A NAVARRA DURANTE LA INSURRECCION DE LOS VASCOS

### AUGUSTIN XAHO



EDICION INTEGRAL

Joan den mendeko karlistak gure lehen euskal nazionalistak ziren

Hizkuntz ezberdintasunaren arauera, argudioa, guti gora behera, honelakoa zen: zenbat eta hizkuntza bat —euskara— beste batetatik —erdararik— ezberdinagoa izan, hainbat diferenteago zatekeen hura zerabilen Herria; eta zenbat eta Herria diferenteagoa izan, are haundiagoak ziratekeen hark berjabe eta independente izateko zeuzkakeen eskubideak. Euskarak, katalan edo galiziar hizkuntzek baino neurri haundiagoaz, euskaldunon “beretzitasun” aparta markatzen zuen. Politikazko arrazoi honexegatik besterik izan ez ez balitz ere, euskararen alde jarri beharra zuten gure politikariek.

### EUSKAL POLITIKARI ERDALDUNEN PARADOXA

Garai hartan, zoritxarrez, gure intelligentsia ia erabat erdalduna zen. Euskara zekitenak, bestalde, ez ziren gauza beren goi mailako pentsamenduak gure mintzairan adierazteko. Pentsabiderako hizkuntza nagusitzat erdara —ipar edo hegokoa— erabili zuten soilki.

Hor baina, kontraesan praktiko bat zetzan. Euskarari, alde batetik, egia, bere garrantzia aitortzen zitzaion, baina bestetik praxisean hura ez zen erabiltzen. Ahoz euskara goraiatzan zuten haiei, euskara ez egiteko —edo eta (gehiago) ez ikasteko—

geratzen zitzaiekeen itzurbide bakarra zera zen, euskara, ttikitandik izan ezik, ikastezina zela esatea; gure gaurko euskara konplikatuegiaren lehen hazia, hain zuzen. Errua, hortaz, ez zetzan pentsonengan, hizkuntzagan haizik.

Euskara, beraz, beharrezkoa zen nazioa justifikatzeko, baina hura praktikara eramatean ondorio larriak zekarzkiekeen harekiko atxekimendu gehiegia. Irtenbide erraza zuten baina: euskara symbologi mailarako uztea, erdaldun etsaiak txunditzeko harmatzat erabiltzea. Eta kanpora begira, hau da, erdaldunei beha, egindako hizkuntz erabilera honnek, noski, ondotik haik beti aho zabalik utz zitzaiekeen jarrera zekarren: garbizalekeria, edozein hitz asmatutara jotzea, erdaldunen aurrean etorki garbi eta “kutsatu gabe” kotzat agertzea helburu.

### EUSKARA IKASTEZINAREN MYTHOIA

Euskara ezin ikasi delako leloa, gaur egun, ez da lehen bezain indartsua. Ibiltzea ibiltzeaz frogatzen da, eta Akhilleok, philolophoen espekulazioak gora behera, dortoka harrapa zezakeela, huraxe eginez, erakuts zezakeen bezala, aspaldiko urteotan euskara ikasi dugunok aski garbi utzi dugu gure mintzairaren ikastezintasuna mytho ustela zela.

Ba dira, dena den, oraindik honetaz konturatu (nahi) ez diren basko aberchale batzu. Eta horiekin tratatu behar duzuenoi argudio simple bat eman nahi nizueke, haik konbentzitzeko ez bada ere —gorrikerrena entzun nahi ez duena baita!—, gutierrez lotsagarri utz ditzazuen, pertsona asko mugierazteko sistema berau.

Hizkuntzak ez dira berez erraz edo zailak. Hizkuntza konkretu bat egitera ohiturik dauden hitzunikiko, mintzaira batzu errazagoak gertatzen dira beste batzu baino. Hola, jatorri berbera dutelako, espainol batentzat kataluniera, portugesa edo italiara, kasu, ulertzeko eta ikasteko errazagoak dira, demagun, alamaña edo japoniera baino. Hau edozeinek dakusa.

Alderantzizkoa ere egia izaten da, hots, aleman batentzat espainola ikastea espainol batentzat alemana ikastea bezain zaila (edo erraza) dela, hau da, hizkuntzak elkarrekiko zailtasun berbera ohi dutela. Berau euskararako aplikatuz gero, zera aterako zaigu, (basko) erdaldunentzako euskara zaila baldin bada, era berean datekeela zaila erdara euskaldunentzat, eta erdara edozein baserritar gizai-xok, eskola askorik gabe ere, nola edo hala ikasten duen bitartean, gure aberchale kaletar “ikasi” askok ez dutela horregatik euskararik ikasten. Horretarako aipatzen duen atxakia euskararen pitxitasun eta zailtasuna bada, aitortu behar dute, halaber, beren odol garbi berekoak diren euskaldunek, erdara pitxia dakitenez gero, buru eta argitasun haundiagoa duketela, eta beraik, parean, kretino, memelo edo alfer batzu besterik ez diratekeela, zalantza hau beren aukeran utzirik.

Xabier KINTANAK

Angel OTAEGI  
Juan PAREDES "TXIKI"  
Jose Humberto BAENA  
Ramon GARCIA  
Jose Luis SANCHEZ  
(Bakean beude)

1975.eko Irailaren 27an Espainian afusilatuak.  
Zuek eta giza askatasun eta sozialismoaren alde,  
faxismoaren kontra, burrukatzen hildako guztiak,  
gogoan zauzkategu, lagunok.

*Zuek atzo,  
Gaur guk,  
Besteek bihar...*

Herriko Alderdi Sozialista Iraultzaileak (H.A.S.I.k)


Angel OTAEGI  
Juan PAREDES "TXIKI"  
Jose Humberto BAENA  
Ramon GARCIA  
Jose Luis SANCHEZ  
(Bakean beude)

Francoren gobernuak orain bi urte afusilatuak.

*Hil nadinean,  
nazatenean,  
ez hadi trista nigatik.  
Harraio ene bideari.  
Hori eginen hukeelako  
esperantzak  
bizi baininduen ni.*

X.K.

ANAITASUNAKo idazle eta langile guztiok ez zai-  
tuztegu ahanzten, lagunok.







# LIBERTÉ, EGALITÉ, FRATERNITÉ.

## DONAPAEUKO IKASTOLA FRANTSES GOBERNAMENDUAK DEBEKATZEN

Paben dagoen Akademiako inspektorearen bitartez, Donapaleun aurten hasi beharra zen ikastola berria debekatzea erabaki du frantses administrazioak.

## ATXAKIA ZEIN DA?

Agintariek diotenez frantses hizkuntza irakasteko ikastolak dituen asmoak ez dira fidagarriak. Eta hau diote, ikastola bera hasi baino lehen, bate-re frogarik gabe. Prefetak esan ere du "frantses" haur guztiek (eta beraz Ipar Euskadiko haurrek) egiatzko irakaskuntza batez baliatzeko eskubidea daukatela. Eta eskolatze hori onhartzen ez duten aitamak legetik kanpo daudela, beraz ilegal den ikastolako aitamek eta andereñoak multa bat ukaiten ahal dute, bai eta ere preso izaiten ahal legegaren arauera, ez badute amore eman nahi. Gainera "allocations familiales" deitu diru laguntzak legez kenduko zaizkiela, mehatxua ukan dute aitamek. Beraz gobernamentuak dauzkan legeak gogorki erabili dituela irudi du, ikastolak haunditzerat eta hedatzerat ez utzi nahiz.

## GISCARD-ek BERE HITZA JAN DU

Duela urte bat, Donapaleuri hurbil zaion Arhansusiko herrian Giscard d'Estaing-ek bisitaño bat egin zuelarik euskara lagunduko zuela hitz eman zигun kartsuki —Ongi ikusten dugu egungo egunean gezur ederrik sakatu zigula aldi hartan ere.

Frantses hizkuntzaz kanpo, burjesgoaren interesak zaintzen dituen frantses estatuak ez du beste hizkuntzarik onhartzen; hau da egia. Euskarak omen duen edertasunaz mintzatzea onhartzen du, baina euskara bera erabiltzea eta gauza guztiak euskaraz erabiltzea ez du onhartzen, frantses errepublikaren batasunaren izenean noski.

Ikastolez kanpo lotsagarria laidogarria, eta ezin onhartuzkoa da, euskarak duen toki eskasa: irratian (egunean 5 minutu), telebistan (hilabetean behin 30 minutu), frantses eskoletan (lege urria, euskararen aldekoa, ez dute ere inon, inoiz betetzen) eta administrazioan (deusik): Hego Euskal Herrian baino askoz gutiago beraz; nahiz demokrazia omen den frantses estatuan...

Euskara gure nazional hizkuntza denez geroz euskararen erabiltzeko eta irakasteko eskubide dugu, gure herrian bizitzeko eta lan egiteko eskubidearekin batean.


Beraz SEASKA erakundea sostengatu behar dugu ahal bezain azkarki.

## UNIBERTSITATE-BARRUTIAZ AGIRIA

Gobernuak, oraintsu agerturiko dekretu-legeaz, Bizkai, Gipuzkoa eta Arabako "distrito universitario vasco" delakoa eratu berria du. Beronetatik Nafarroa kanpoan uztean Madrileko gobernuak berriro ere gure Herria zatikatzeko bere ahalegin eta probokazio lotsagarriak erakutsi dizkigu. Honetan bereziki salhatzekoa da UCDeK, gobernutar alderdiak, Nafarroaren kontra darabilen politika, oraingoan Nafarroa beste euskal herrialdeetarik bereizten duen artean, Zaragozarekin lotuta atxekitzen baitu. Barruti honetatik Nafarroa baztertzeak, modu berean, aldez aurretik, Suarezen gobernuaren borondatea aski garbi erakutsi du, datorren autonomi estatutuaren eremuaz zer pentsatzen duen azalduz. Oraingo azpikeria honetara makurtu direnen posibilitismoaz geure kezka guztiak agertzen ditugu.

Gaitzestekoa dugu, halaber, unibertsitate-barruti hau erabakitzeo erabili den prozedura antiherritar eta ikasle-irakasleen kontrakoa, arazoa zuzenenik doakienek hor bat ere parte hartzerik ukan ez baitute.

Donostian, 1977.eko Irailaren 27an.  
Sinatzaileak: EIA, ESB, HASI, Jazar, LAIA



# *bestelako kezketarako ere irekia dagoen bankua*

Gipuzkoako Bankuak, jakina, bere bezeroek uzten dioten diruari etekinak atera behar dizkie.

Baina ez da hori gure helburu bakarra, ez eta ardurazkoena ere. Zinez uste dugu, eskuartean darabiltzagun baliabide propio eta bestek utziak, batez ere, geure Herriaren aurrerabidea bultzatzeko erabili behar ditugula.

Ba liteke norbaitzuk zera uste izatea, kultur gaiak, hala nola

Erakusketak, musikazko kontzertuak, Arte taldeak, argitarapenak eta Hitzaldiak

banaka batzuri interesatzen zaizkiela soilki.

Eta hola uste dutenak zuzen daudeke, baina hor konpon esatea ere ez da aski arrazoi. Laster gero eta gehiago izango gara, eta kulturak guztiok aberastuko gaitu.

Kultur gaiei dagokienez...

**G**  
**GIPUZKOAKO  
BANKUA-K**

ez dio inoiz "hor konpon".



# DONA PRUDENTZIA ETA IDEALISTA

Kafetegian sartu denean, Doña Prudentziak ez du itxura onik. Salmahaira hurbildu eta kafesnea eta gailetak eskatu ditu.

IDEALISTA.— Hemen duzu, Doña Prudentzia.

D.P.— Hau gero eta txarragora doa, Idealista.

I.— Bai?. Ba guk ezkertiarrok ez dugu oraindik aginterik. Beraz, zerbait oker balego, guk ez genuke errurik.

D.P.— Aginterik ez, baina zirikatu, bai dakizuela egiten. Nire senarrak, Don Listok dio entrepresa guztiak kiebran daudela, porrot egiteko arriskuan, eta langileak gehiago eta gehiago eskatzen ari dira. Azkenean, hainbatek hertsu egin beharko du, eta orduan, zer?. Denak kalean geratu beharko dira.

Idealistak edalontziak garbitzen dituen artean erantzuten dio.

I.— Bart ekonomista bati zerbitzatu nion eta gai horretaz hitz egin genuen. Hark zion entrepresa askok, Francok sortutako giro faltsoan, gidari txarrak eduki dituztela. Irabazten zena banatu, eta erreserba gutxi egiten zituela. Gero, krisia etorri denean, dirurik gabe aurkitu dira, erreserbarik gabe, eta akreedoreei erantzuteko, Bankuei eskatu behar izan dizkiete kreditoak. Bankuei interes handiak ordaindu behar dizkiete, eta horrela produkzioaren kostua igon egin da. Kostua igon egin zaie, baina salmentako prezioa ezin izan dute igon, krisia eta kompetenziagatik. Orduan, galtzeak etorri dira, eta erreserbarik gabe zeudenez, entrepresa horik deskapitalizatu egin dira. Beraz, errua, nagusia da, Administrazio Kontseiluen urte onetan urte txarretarako erreserbak egin ez dituztelako.

D.P.— Bueno, nik ekonomiaz ez dakit gauza askorik, baina nire senarrak dio langileak...

I.— Langileetaz ere ba dago zer esanik. Entrepresa askotan edonola hartu zituzten eta ez dira arduratu haien kalitatea hobegotzen. Produzi erasten zien, eta kito. Hemen ere denbora txarretarako perspektiba falta nabari da, erreserbakin gertatu den bezala.

D.P.— Ez dakit nora goazen.

Idealista gaur oso berritsu dago.

I.— Estatuak berak eman behar luke exemplua. Hori zion atzo ekonomista hark. Estatuak da entpresarik handiena, haren langileak ehunda milaka kontatzen direlako. Espainian, Gobernu, Diputazio, aiuntamentuak, eta hainbat organismoetako funtzionariak, zortzirehun mila omen dira. Nolako produktibitatea dute guzti hauek?. Ikus Europa. Diru sendoena dituen Estatuak Alemania Federala eta Suiza Federala dira, hau da, Federal izanik, armada eta polizia gutxien dituztenak. Zertarako hemen hainbeste armagizon?. Horiek ez dute ezer produzitzen, gaztatu baizik. Armada eta poliziaren estruktuzazio bat behar da, beharrezkoak bakarrik utzirik. Estatu eta gainerako organismo guztien berrestruktuzazioa beharrezkoa da ere. Estatuak berak eman behar dio exemplua entresera pribatu guztiei. Estatuak bere antolamendua hobegotzen ez duen bitartean, pesetaren balioa beherantz joango da.

D.P.— Don Listo beldur da orain udazkenean langileak sortuko dituzten eskabideak direlata.

I.— Eta derrigorrean egin behar. Ba al dakizu prezioak nola igon diren?.

D.P.— Ez dut jakingo ba?. Aberats omen garenok ere jan eta jantzi egin behar dugu.

I.— Baina zuek ba duzue nondik atera. Eta soldata urri batekin bizi behar direnak?. Atera itzazu kontuak nola ibili beharko diren.

D.P.— Turista asko etorri omen da. Ea horrek zerbait konpontzen duen.

I.— Bai, hori lagungarri izan daiteke, baina ezin gaitzke beti kanpora begira egon. Turistak hona badatoz, zerbaitengatik da, eta zerbait hori aldatzen bada, hona datozen bezala beste tokiren batetara jona daitezke. Turismoan soilik ezin daiteke etorkizuna finkatu. Lagungarri bai, baina oinharri ez.

Dagoenako, Doña Prudentziak bukatu du gosaria.

D.P.— Bueno, ba noa. Jantzi bat erosi behar dut eta ez dakit senarrak eman didana nahikoa izango ote den.

Idealistak maltzurki begiratzen dio, eta irribarezka...

I.— Ai, pillinal. Hori zen, e?.

Xabier Gereño

## SURSUM CORDA(1)

(EUSKAL ASTAKERIEN INGURUAN)

Bi urte dira honez gero, baina orain balitz bezain ongi gogoratzen naiz hartaz. Euskal Herriko banku batek, erdipurdiko hainbat itzulpen-mitzulpenen ondotik, bere erdal izena euskaraz "behin betiko" jartzea erabaki zuen. Nik beste zenbait euskaltzalerekin batera, eritzi batzu agertu nizkion, itzulpena egokia gerta zedin. Dirudienex itzulpen askotxo eman zizkieten bankuari, kontseilari gehiegi, antza. Eta aukeraren maukera, azkenean... okerra. Eta holaxe gertatu zen. Argi eta garbi okerra zen itzulpena hautatu zuen banku hark.

### EUSKAL IDAZLEEN ERANTZUNKIZUNA

Aldizkari batetan itzuritako okerra, okerra izanagatik ere, ez ohi da oso larria. Aldizkaria eskribu iragankorra baita, behin irakurri ondoan zokoratzekoa. Liburu batetan egindakoa, aldiz, oker handiagoa dateke, liburua behin baino gehiagotan irakurtzen da eta. Kartel ageri batetan egindakoa, aldiz, larri-larria da, jende askoren begietara sartzen delako.

Ez dezagun deus esan, azkenik, oker hori ez behin, baizik eta hainbat tokitan, publizitate zabalez hedatzen baldin bada! Kasu horretan egindako okerrek ez dute barkaziorik.

Hala eta guztiz ere, Herri normal batetan, bere hizkuntza eta kultura nazionalak ofizialki irakatsi eta zainduak dauzkan batetan, grammatikaren edo

historiaren kontrako okerrak ez dira, egia esan, hain pisutsuak. Horietan, jakinak eta ezagunak direlako, oker bat egiten duena, automatikoki, erizpide kritiko normala daukaten herritar gehienek begietan, ezjakintzat hartua izaten da, eta hura kultur mundutik deskalifikatzen. Okerra, gainera, edozeinek zuzen diezaiokenez gero, ez da hain larria.

Euskal Herrian, aldiz hori ez da horrela. Jende gehienak beren hizkuntza nazionalen ez daude alfabaturik. Horregatik ez dute euskara irakurtzeko ohiturarik, eta are gutiago, noski, idaztekorik. Kasu honetan, eskribuetan egindako okerrak barkaezinagoak dira, eredu txar horren aurrean jende arruntak defentsarik ez duelako. Letra inprimatuak indar haundia dauka, erakartasun nabaria eta euskaraz guti dakitenek, eskuharki, zera uste dute, euskaraz idaztera ausartzen direnek, horrexegatik, hori egitea hain normala ez delako, gutienez ba dakitela ondo idazten, gutienezko euskal grammatika ongi menderatzen dutela halegia.

Euskal idazleen hitza, hortaz, legetzat hartzen du jende xumeak. Erizpiderik ezaz, lastoa eta garra bereizten ez daki, eta berdin irensten du dena. Hortik gure idazleen erantzunkizuna. Hortik, stylistikaz arduratzen hasi aurretik, eskribaeraz, orthographia soilaz ere kontu eduki beharra. Honetan arrazoi osoa ematen diot Joxe Azurmendiri, eta barka biezat, otoi, Bernardo Atxagak, hurrengo maila batetan, hots, normaltzean, hori erabat gainditu beharra egon arren.

Horrexegatik, beraz, kartel publiko eta hainbat tokitan agertzeko den batetan azalduriko okerrak berehalaxe salhatzekoak dira; eta gogorki salhatzekoak, hain zuzen, gure Herri zoritxarraz bere hizkuntzan ez jakinari nahasterik sor ez diezaioten halakoek.

SURSUM CORDA EDO DESARRAZOIA-  
REN ARRAZOIA

Bihur nadin orain lehengo kontura, aipaturiko banku horretan. Nik neuk, kortesiaz, bertako zuzendariari gutun bat bidali nion, hartan bankuaren izen berriaren desegokitasuna eta okerra xeheki

### BURRUKAN DENOK LOTUTAK:

- DESPIDUREN AURKA
- LANAREN EHARREMANEN DEKRETO-LEGE AURKA
- LANDOZTUAK DENONTZAT
- GREBA, ADIERAZPEN ETA IBIALDIA ESKUBIDEN ALDE

I.S.B.-U.S.O., CC.OO., U.G.T.

Letra inprimatuak, onetarako eta txarrerako, indar handia du



azalduz. Gure gizonak, oso modu onean, erantzun egoki bat eman zidan, berak ez zuela horretan parterik hartu esanez, eta ni bankuko "euskal" ardura-dunagana zuzenduz.

Nor zen jakinik, jaun horrexegana joun nintzen, neure kezka azaltzera. Bera gizon zaharra zen. Ongi errezibitu ninduen eta luzaro mintzatu ginen. Euskaraz gainera. Nire argudioen aurrean berak inolako arrazoi zuzenik ezin kontrajar zezakeela ikusi zuenean, gutien espero nuenean, honela ihardetsi zidan: "Es igual, ya lo hemos puesto así y así está bien, como le hubieramos puesto SURSUM CORDA".

Ni neu, arropostu harekin erabat harriturik geratu nintzen. Hainbat aldiz entzuna dut diplomaziarik eza gazte bihurrian bekatu eksklusiboa dela eta ez nuen espero, egia esan, umegorritasuna hain atzean utzia zuen gizon zahar eta zuhur bategandik holakorik.

-Hortik hasi beharko zenuen, gizona - erantzun nion. Horrela grammatikazko eta histori azalpen guztiak aurreratuko zenizkidakeen. Sit pro ratione voluntas (= "izan bedi borondatea aski arrazoi!") horrekin ez nuen nik han zereginik. Lauzpabost hitz, ez hain kortesiazkoak, elkarri egin ondoren, alde egin nuen nik handik.

Ez da hemen ardurakoa zein banku zen hura esatea. Bekatu aipatzea aski da, bekataria esan gabe ere. Hori zuzen dezaketenek, bestalde, arrazoren berri ba dakite eta okerra zuzentzen ari direla esanzen nuke gainera. Pasadizoa kontatu badut, esanguratsua eta gure arteko zenbait arazoren absurdukeria ilustratzeko egoki delako egin dut.

## ITURRIA: EUSKARA SYMBOLIKOA

Arazo honen jatorria guztiok dezagugu: euskara, eguneroko komunikabide normal gisa barik, hura, soil-soilki, symbologiarako erabiltzea. Eta symboloak, berez ulertzeko ez, baizik eta azaltzeko, interpretatzeko zerbait izaten dira, horregatik, euskara symboliko hori, euskaldunek ulertzekoa ez, baizik erdaldunei azaltzekoa denez gero, zenbat eta "garbiagoa", hots, zenbat eta ulertezinagoa, are hobeki. Horrela, gure hizkuntza harrigarri eta arraroaz erdalkunak aho zabalik eta txundituta uzteko keria horrek, ondorioz, maiz euskaldunok ere harritzeko punturaino garamatza.

## HITZALDI XELEBREA

Euskara "Kanporako" edo "itxurazko hizkuntza" gisa erabiltze honetaz anekdota pitxi bat kondatuko dut, karikaturaz, oraingo egoera txit ongi erakuts dezakeena.

Duela hamar bat urte gertatu zen. Sasoi hartan Europako ethnia ttikien aldeko federalistek bilera bat egin zuten Suitzan. Bertan, Euskal Herriaren ordezkari gisa, bilbotar abokatu bat zegoen, euskaraz ez zekiena. Bileraren bukaeran zera era-

baki zen, symbolikoki, Herri bakoitzeko ordezkariak beren hizkuntza nazionalean hitz batzu esatea.

Hasi ziren bretoiak, gero flamendarrak, geroago katalanak, ondoren galestarrak... eta halako batetan gure herkideari heldu zitzaion txanda. Hark ez zekien euskaraz mintzaten, baina han euskaraz egiten ez bazuen, irrigarri utziko zuen gure nazioa. Zer egin?



Gure gizona argia da eta txanda heldu zitzaionean mahaira igon eta honelako hitzaldia egin zuen: Ni naiz, zu zara, bera da. Euskadi ta askatasuna. Santa Ageda, Ageda, gure martiri maitea. Txakurra, gizona, eliza, ardoa. Gu gara. Boga boga marinela. Gora Euskadi askatuta!

Ondoren, txalo beroak jotzen zizkieten artean, serio-seriorik, bere tokira bihurtu zen.

"Hizkuntza pitxia da euskara - esaten omen zuen batek - ozentasun handikoa". "Umoretzu jo bide du" - gaineratu omen zuen beste batek, bertan ziren beste euskaldunek irribarre egiten zutela ikustean.

Hau holaxe gertatu zen orduan. Eta holaxe segitzen du gertatzen orain ere meeting askotan ere. Erdara ez dena euskaratzat jotzen da, eta obligazioz, symbolikoki, konprenitu gabe txalotzen. Baina bistan dago erdaldunentzat "euskara" den hori maiz ez dela euskaldunontzat ezer. (segitzeko)

Xabier ARMENDARITZ

# EUSKAL HERRIAN

## Gipuzkoako Hirigintz Batzordea demokratizatu nahiz

Irailak 12, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo ofizialaren Donostiako etxean hauzo elkarte, profesional elkargo, alderdi eta alkate demokrati-koen taldeak zita bat zuten prentsakoekin batean.

Gaia garrantzitsua izanik, eta 1.977.eko Ekainak 2ko Dekretuak ipini zuen epea Irailaren 17rartekoa bakarrik zela, Arkitektoen Elkargoak Hirigintz eta Herri lan Ministrariari zuzendutako eskribua presentatu ziguten mahai inguruan, guztion artean aztertu eta egokitzen joz gero herri elkargoen ordezkariak ere izenpeturik presio handiago bat egin zedin.

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Aginte Batzarreak Irailak 3ko bere bileran, izendatutako Ministrariari, Probintziako Hirigintz Batzordeen berregituraketarentzat, elkargo honen eritziz hartu behar diren erizpideak azaltzen ziren eskribua bidaltzea erabaki zuen.

Txalogarria benetan Arkitektoen Elkargoak bota diguten oihua, berak urratu baitu Hirigintz Batzorde arazo hau, eta berak tinkatu hagina, bestela, Espainiako Administralgoak betiko erdikoikeria eta burokraziaz jarraituko zuen hain herritar eta soziala den gai honetan, hain zuzen, Arkitektoen Elkargoari esker esnatu gara bai hauzo elkarte eta bai alderdiak ere. Gipuzkoako urbanizaketa eta hirigintzarako garrantzi handia eta kompetentzia zabalak dituen, delako Batzorde herritarra eta eskaldun bihurtzen saiatu beharko gara.

Halere, mahai inguruan Euskal Herriko Arki-

tektoen Elkargo Ofizialak Ministrariari eginikako eskribuaz eritzi desberdinak agertu ziren. Jakina da orainarteko Probintziako Hirigintz Batzordeen konposaketa Estatuaren ingurualdeko zertatu ofizialen ordezkariak menperatzen baitzuten udal eta diputazio demokratiako ordezkariak osatu beharko dute delako Batzordea.

Batzorde horretan, ordea, baita ere profesional elkargoen ordezkariak egotea eskatzen zen Batzordeak teknikazko laguntza ofiziala izan dezan. Baina, desberdintasunak Batzordearen herri kontrolpea nola ulertu eta eratu beharko litzatekeen eta sortu ziren. Arkitektoen Elkargoak alderdi hauzo elkarte eta herri batzarrearen ordezkariak bozarekin baina boturik gabe aipatzen zituelako, agertu ziren mahai inguruan eritzi kontrajarriak. Hirigintz Batzordea herri kontrolpean jartzeko eta baita nahikoa boza edukitzea, herri batzarreei eta herriko beste ordezkariari erabakitzea ere ba zego kiela aipatu zuten HASI eta OIC alderdikoek, hauzo elkarteetako beste ordezkari batzuk bezala.

Gauzak horrela, ia ez zegoen guztion konformitatezko eskribu berri bat egiteko betarik, eta Arkitektoen eskribua Ministrariari bidaltzea ongi ikusi sirik ere, beste eskribu labur eta oinbarrizko bat idaztea erabaki zen, hategia, Ministrariari Dekretuak ezarritako epea luzatzeko, eta Probintziako Hirigintz Batzordeen egitura demokratikoa eta dezentralizatua izan behar dela eskatuz.

Eta hurrengo egunetan 25 elkargoen ordezkariak, beren elkargoen oneritziarekin ondorengo eskribua izenpetu zuten Ministrari jaunari igortzeko.

## HIRIGINTZ ETA HERRI LAN MINISTROARI

Ministro jauna:

## HIRIGINTZ ETA HERRI LAN MINISTROARI

Ministro jauna:

Ordezkariek garen erakunde eta elkarteen izenean behar izenpetzen dugunok, hile hontako 12an bildurik eta bilera hortan erabaki zenez, zera

### AZALTZEN DIZUTE:

1977ko Uztailak 17an Estatuaren Boletin Ofizialean Ekainak 2ko Errege Dekretua zeinean Estatuak, Probintziako Hirigintz Batzordeei, plangintzaren egiketa eta eraginduraren arloan ematen dizkien atribuipeak azaltzen ziren eta baita ere lege horren azken 4. erabakiaren araura Batzorde hauen berregituraketarentzako dagoen hiru hilabeteen epea.

Errege Dekretu honek nabariki gehitzen dituen atribuipearen garrantziarengatik, alegia:

- Informazio aldetik
- gestioaren aldetik
- erabakiaren aldetik
- fiskalizapen aldetik

eta oraingo Probintziako Hirigintz Batzordeen konposaketa Estatuaren Ingurualdeko zerbitzuen ordezkariak menperatzen bait dute, bertako erakundeen ordezkari tiki bat,




eta profesional herri edo hauzoko beste bat tikiagoa ezik, behar izenpetzen dugunok, Probintziako Hirigintz Batzordeen berregituraketak hurrengo hiri bilakaerentzat duen garrantziarengatik, eta proposamen zehatza egiteko denbora materialik ez bait dago, zera uste dugu:

- Probintziako Hirigintz Batzordeen egitura demokratikoa eta deszentralizatua izan behar dela.
- 1977ko Irailak 17 arteko epea, parte egoki batetik, erabakia handitu behar dela, 1. puntuko irizpidearen araura, oraingo politik egoeraren kezka eta beharrei erantzungarri teko egokia izan behar den proposamen iragankor bat egiteko denbora ukaiteko.

Beraz,

Azaldutaz ukan, bide eman, eta eman azaltzen diren proposamenak onartu har ditzazun, EZKATZEN DIZUGU.

Donostia, 1977.eko Irailak 12



anaitasuna

euskal herriari,  
informazioa  
euskaraz.

**EUSKAL PRENTSA  
EUSKALDUNON HITZA**

*zeruko*  
**ARGIA**

**GEU  
GARA  
EUSKAL  
PRENTSA**

anaitasuna

*zeruko*  
**ARGIA**

## DONOSTIAKO XXV Zine jaialdia.

HAUZO ETA HERRIETARA EKARRI DUGU

SELECCIONADA PARA LA SESION DE CIERRA DEL XXI FESTIVAL INTERNACIONAL DE CINE DE SAN SEBASTIAN

SERGE SILBERMAN presenta

UN FILM DE LUIS BUÑUEL

Ese  
Oscuro  
Objeto  
del  
Deseo



Herriari beti ukatu zaiona, herria ari da eskuratzen. Herriarentzat izan behar duena, herria ari da lortzen. Hau, arlo guztietan egia baldin bada, kulturaren ere hone-lata doa prozesua.

Donostian urtero egiten den Nazioarteko Zine Jaialdiak, aurtan bira bat eman du. Zine Jaialdi hau, hiltzeko zorian zegoela, dei bat egin zitzaion zenbait artista eta Donostiako Kultur Elkartei, hauek interesgarria aurkitzen bazuten, Zine Jaialdia beren eskuetan har zezaten.

Asanblada ireki bat egin zen eta bertan, iragaitzako Komite bat aukeratu, Zine Jaialdi herritarrago bat eratzeko helburuz.

Lehenen aldatu zena, filmeak aukeratzeko modua izan zen; multinazionalak egiten dituztenak, ahal zen neurrian, alde batera utziz, eta kalitate, arrazo garrantzitsuena bezala hartuz.

Herritartasun ideia hau aurrera eramateko, interesgarria izanen litzatekeela hauzo eta herrietan Zine Jaialdira ekarritako filmeak pasatzea pentsatu zen. Txapelketara datozenak, ezin dira Donostiatik

atera, nazioarteko erregelamenduak dioenez, baina besteak bai. Bestaldetik, azkeneko hauen artean egoten dira interesgarrienak, eta ez txapelketara datozenen artean.

Hauzo eta herrietarako programa eta eginkizunak eratzeko, bilera batzu egin ziren toki bakoitzeko ordezkariekin.

Herrietara ekarri nahi genituen filmeak asko ziren, baina produktoreek eta, zenbait arazo jartzen zigutenez gero, azkenez zerrenda labur xamarra geratu zitzaigun.

Adibidez, Passolini ez genuen ekarzerik izan, Buñuel-enen artean "El angel exterminador" besterik ez, etab.

Hala eta guztiz ere, ba zegoen sesio onak eratzeko materialea, ondoko herri hauetan egin zen bezala: Añorga, Donostiako "Corazón de María", Lasarte, Zarautz, Andoain, Billabona, Trintxerpe, Pasai Antxo, Hernani, Intxaurrondo, Errenteria, Orio, Arrasate, Irun, Oinati, Donostiako "Príncipe" eta Legazpia. Hauk izan dira, aurtan Zine Jaialdia izan duten hauzo eta herriak. Toki hauetan ikusi ditugun filmeak, hurrengoak izan dira:

### EUSKAL ZINEMA:

- Iñaki Nuñez-en BOLTXEBIKEAK IRRIPAREZ.
- Iñaki Nuñez-en ESTADO DE EXCEPCION.
- Rafael Ruiz Balerdi-ren LA CAZADORA INCONSCIENTE.
- Anton Merikaetxerria-ren EUSKAL SANTUTEGI SAKONA.
- J.B. Heinink-en IKURRIÑA FILMEA
- Antton Ereiza-ren MINA, VIEN-TO DE LIBERTAD (Kubakoa).
- L. Buñuel-en EL ANGEL EXTERMINADOR (Mexikokoa)
- Thomas Harlan-en A TERRA TORRE BELA (Portugalekoa).
- Mario Robles-en EXPROPIACION (Perukoa).
- Sara Gómez-en DE CIERTA MANERA (Kubakoa).
- Manuel Pérez-en RIO NEGRO (Kubakoa).





- Gonzalo Herralde-ren RAZA, EL ESPIRITU DE FRANCO.
- Raúl Araiza-ren CASCABEL (Mexikokoa).
- Fernando Colomo-ren TIGRES DE PAPEL.
- Marco Bellocchio-ren MARCHA TRIUNFAL (Italiakoa)
- Humberto Solás-en LA CANTATA DE CHILE (Kubakoa)
- Tomás Gutiérrez Alea-ren LA ULTIMA CENA (Kubakoa).
- Bernardo Bertolucci-ren NOVECENTO (Italiakoa)
- Miguel Alcobendas-en LORCA Y LA BARRACA.

Filme bakoitzaren kritika ez dugu orain egiten, baina jeneralean esan dezakegu, ideologia aldetik oso interesgarriak izan diren filmeak ikusi ditugula; gehienak, errealismo sozialista batean sartuak. Zine militantea deritzona, oso egokia izan zaigu herrietan, orain arte ikusi izan ditugun filmeen aurrez, gauza sakon bat agertzeko. Filmeak ikusi ondoren sortu izan diren extabaidak iruditu zaizkigu, esperientzia honen ondorio aberasgarrienak.

Sección informativa del XXV Festival Internacional de Cine de San Sebastián



Jende pila bat etorri da Zine Jaialdi hau hauzo eta herrietan ikustera, bertan agertu ziren direktore, aktore eta abarrek, ideia aldaketa bat izateko aukera eman digute. Benetan positiboa izan da, filmeen gain hitz egiten, beste gizarte moeta batean nola alda daitekeen bizimodu ikustea; Kubakoek erakutsi diguten bezala, bere herriari buruz hitz egitean.

Baina... hasiera besterik ez dugu izan hau. Hemen bide batean abiatu gara eta bide hori luzea egingo zaigu benetan. Ez da aski, urtean behin, pelikula on bat ikustea. Herriak ez du zinema ikusi behar, huts-hutsik, baizik eta zinema egin ere.

Eta Euskal Herrian, oso atzeratuak gaude gai honetan, kultura aldetik sufritu dugun zapalketaren ondorio bezala.

Urrats bat, hauzo eta herrietan, hemendik aurrera, hilabetero guttienez, filme on bat pasatzeko aukera ahal izatea izanen litzateke.

Jendeak, hiru egunetan, zine berri baten kontzientzia hartu baldin badu, ez bagara orain geratzen, zinelari ugari sortuko zaizkigu geure herrian.

Eta hau, behar beharrezkoa dugu gaur egun Euskal Herrian, lehenengo mailako adierazpide bat mundu osoan zinea dugunez.

Itziar



## ERITZIA

Ostia bat emango al digute?

Ba genekien nola zen Suarez. Ez dago orduan ezertaz harritzekorik. Arazo guztien konponbideak nola luzatuz hala gaizkoatuz doaz, bai politikan bai ekonomian. Gorteak bitartean, frankismoaren sasioan bezala, komak eta puntuak aztertzen saiatzen dira, funtsezko azterketak ukitu nahi eza. Bi urtetan emango dela konstituzio berri bat. Edozein estatuk bi edo hiru hilabete behar ditu konstituzio berri bat abiadan ipintzeko. Hemen aldiz, Spain is different delako horregatik edo, gure konstituzio-emaileak bi urtebetez arituko dira horretaz. Benetan zoraturik daude. Epea luzea da. Dauxkagun arazoak eta ekonomia goitik aginduz, prozesu honek edozein momentutan porrot egin dezake. Suarez, ez da Kerenski lerdoa eta ez dakigu zeintzu arrazoi ilunengatik prozesu luze hau hankaz gora buka daitkeen. Arrazoi ilun horien argitasunez beldurtzen gara benetan. Kapitalaren ihesketa gelditu al da?. Estatu honetako aberatsak demokraziaren alde al daude?. Estatu honetako politik alderdi indartsuena, hots: Armada, demokrazia burjesaren alde al dago? Ordenu zainzaileak noren alde daude?. Guzti hauek ez dute inolako barne garbiketarik eduki. Berton kokatzen den ideologia eta ohitura frankismoaren denboraldikoa da. Inork ez du nahi bertan eskusartzerik egin, baina eskusartzea derri-gorrezkoa da. Epe batean, lehenengoan behintzat, Centrokoek eta Estatu honetan kontrolatzen dituzten aberastasun guztien ordezkariak begi onez ikusi dute zainzaileen gogortasuna, inor senetik irteteko gogorik edukiz gero nortzu zeuzkaten aurrean jakin lezaten; eta ongi jakin egin dugu guk, zuek eta baita ere PCren monjek eta Filipitoren jesuitek, biguntasuna errealitatezko politika bat zela erakutsiz. Ekainaren 16tik hona biguntasunezko politika hau aurrera doa, parlamentariak gorteeta-

ko eztabaidekin libertituz eta Estatu pikutara joanez. Frankismotik demokraziarantz izan zitekeen lema edo miraria, frankismoarekin demokrazia bilakatu du Suarezek, eta honek ez du zentzurik. Egerra hau bukatu beharrean legoke eta bukatzen ez bada laster gu bukatuko gaituzte, Suarez eta Centrokoak ere atzerrira bidaliz. Avilako jauregiberria, beraren fama, barreak etab. bukatuko zaizkio era berean.

Euskal Herrian duela urtebete KASek hautakizuna egin zuen. Orduko zentzu onaren ordezkari politikoez hura ametsetako eta maximalistatzaletan zuten indar zapaltzaileen deuseztapena: Zer zen hura! Santanderen PSOeko parlamentari bati egindako ukituak aski bide eman dizkio PSOeri, Euskal Herriko orain arteko hil, preso, torturatu eta zauritu kontaezinak erabat ahantziak zeuzkanari, indar harmatuak kontrolatu beharra lau haizetara aldarrikatzeko. Cousas veredes adiskide minimalistak!

Damu dut Florentino Hergueda kapitainaren erhaiketa edo asasinatzea. Benetan damu dut. GRAPO, zein CRISTO REY zein faxista guztiek asmatzen eta kontrolatzen dituzten erakunde harmatu horien helburua oso klarki dagoelako. FAXISMOA berriro Estatu honetan ezarri nahi dute.

Begien bistan dago, edo egon beharko luke, itsu izan nahi ez dutenentzat behinik behin, indar harmatuak erroz eta sakonki eraberritzen ez diren bitartean hemen ez dela hiritar eta demokrazi giro iraunkorrik egongo. Bidea ez da ene ustez azken asasinatze honen egile materiala nor izan den jakin eta harrapatzea, bihar beste bat eta etzi beste bat berdin gerta baitaiteke. Soluzioa sakonagoa da. Horregatik zailagoa, premiazkoagoa baina.

E. Hiruste

# GRAMATIKA SAILA



## -TA ATZIZKI ADBERBIALAREN ERABILKERA

Aurreko artikuluan azalduko arazoaren haritik —askatuta/askatua—, oraingo honetan ere -ta atzizki adberbialarekin zerikusirik duen puntu bat aztertuko dugu.

Esan genuen bezala, askatuta eta antzerako hitzak adberbioak dira. Orohar, nola galdegileari erantzuten diote.

Nola? Askatuta, nekatuta, piztuta, jantzita.

Honetaz, ba, -(r)ik eta -ki/-gi atzizkien funtzio berbera betetzen du: askaturik, askatuki.

Nola? Askatuki, poliki, ongi, askaturik, pizturik.

Hauk guzitiok adberbioak dira, eta arrazoi horregatik ez dute deklinabideriz. Bistakoa da, beraz, ez dutela ez singularrik, ez pluralik, ez antzekorik.

Berdin esan daiteke eta esaten da:

askatuta dago askatuta daude

Hala ere, sarri entzuten da —euskaldun ikasi berrien artean batez ere— eta batzutan idatzirik ikusten ere, honelako gauza bitxirik:

askatuta dago baina askatutak daude

Hots, askatuta adberbioa izen edo adjetibo bat bailitzen erabiltzen da eta -k pluralizatzailea jartzen zaio.

Azken batez, arazo honen atzean, adberbio/partizipio nahastea dago: askatuta/askatua. Eta lehenak deklinabidea ez duenez eta bigarrenak ba duenez, hor dago nahastea.

Nahaste horren erruz, honelako esaldiak aurki daitezke liburu eta aldizkarietan:

...paper hauk onhartuak izatea espero dute guztiz nekatutak daude

60 ikasleatarik 40 atera ziren, minduak, jotak

Kasu hauetan onhartuak, nekatuta, eta minduak/joak edo minduta/jota erabili behar dira.

Beraz, berriro diot: nekatuta adberbioa da eta nekatua adjetiboa. Lehenari ezin dakioke erants deklinabideko atzizkirik; bigarrenari, bai.

J.R. Etxebarria

## SUKALDERAKO SALTSAK



### OILASKOA ESNEGAINAZ

6 lagunentzat behar dituzu:

Bi oilasko (bi kilokoak gutti gora behera). 60 gr. gurina edo margarina. Bi katilu esnegaina (250 gr.). Bi arraultze. Goilarakada bat ziape (1). Gatza eta biperhautsa.

Zatika itzazue oilaskoak. 12 Zatitan gutti gora behera. Dora itzazue zati guztiak. Honetarako, bota lapiko batetara gurina ala margarina eta oilasko zatiak. Kasu!: oilasko zatiak ez dira irinetan ipini behar. Doratu eta gero bota egizue gatza eta biperhautsa.

Lurrin lapikorik baduzu hobe duzu bertan zati guztiak doratu egitea, gero bota ezazu lapiko bertan ur pixkat (baso bat edo) eta goilarakada bat ziape (1) bota diezaiokezu. Ziapea "de dijon" ala Donostiakoa izan behar da besteak ez du balio. Ziapea egosiz gero bere bizkortasun eta mingar erdia galtzen du. Horregatik ez beldurrik izan. Lapikoa hitxirik ipin egosten 15 minutu gutti gora behera.

Lurrin lapikorik ez baduzu, bota ezazu ere ura (oraingotan bi baso) eta hitxi egosten ondo egin arte (20 minutu gutti gora behera).

Bitartean irabia itzazu arraultzeak eta nahasta esnegainarekin.

Zatiak egosi eta gero ez da urik ia ezer geratu behar lapiko barruan. Geratzen bazaizu bota ezazu. Bota ezazu lapiko barrura arraultze irabiatuaren eta esnegainaren nahastura eta eragin bizkor. Kasu! ez hitxi inola ere irakiten; horretarako su ttikian egon behar da lapikoa.

Saltsa lodia bihurtu denean erretira sutatik. Jateko hau edozein barazkiekin batera zerbitza daiteke.

Perretxikoak saltsa honekin nahasturik, oso laguntzaile onak izaten dira.

On Egin

(1) Mostaza: Moutarde



# GALES: zer ikusi, hura ikasi.

## DATU GEOGRAFIKO ETA SOZIOLOGIKOAK

Gales Herria (Cymru = "Kimru" bertako hizkuntzaz) Britainia Haundiko mendebalean kokaturik dago. Geografia aldetik herri menditsua da. Haran eta ibar ugari ditu. Tradizionalki Gales, artzain, baserritar eta arrantzaleen herria izan da. XIX mendetik hona Gales Herrian transformakuntza asko gertatu dira. Gaur, benetako herri industrialia dugu. Industriak eta faktoriak, bazter batzu kendurik, ia leku guztietan aurki daitezke. Hiriburuan eta inguruko eskualdeetan batez ere. Gales Herriko zabalea hogeita bederatzi mila km. koadratu ingurukoa da. Euskal Herria baino pixkat handiago beraz. Mila bederatziehun eta hirurogeita hamaikan, orduko estatistiken arauera, bi milioi zazpiehun eta hogeita hamaika bizilagun zituen. Ehuneko hirurogeita sei hiriburuan eta inguruko eskualdeetan bizi dira. Bertoko industria nagusiek burdingintzan eta altzairugintzan dihardute. Azken urteotan eta lanbide horien krisis mundialaren ondorioz burdingintzak eta siderurgiak gero eta lanpostu guttiago sortzen du. Galeseko ekonomiaren etorkizunak transformakuntza osoa behar du, industria ttikiago eta espezializatuagoak sortuz. Bertoko agintariak eta ekonomilariak bide berri honen premia ikusi eta bertan abiatu dira.

Lan honetan hizkuntzaren arazoari lotuko gaitzaizkio batipat.

Galestarren hizkuntza, bretoieraren enbor berekoa da. Keltar hizkuntza. Gaur egun, mila bederatziehun eta hirurogeita hamaikaren estistikaren araura, 542.000 galestarrek hitz egiten dute galeseraz. Galesera nekazarien eta arrantzaleen hizkuntza da batipat. Iparraldeko eta mendebaldeko eskualdeetan oso zabaldurik dago. Hiriburuan (Cardiff) eta inguruko eskualdeetan oso gutti entzun daiteke. Hala ere, aurrerago ikusiko ditugun arrazoiengatik, lehen guztiz galdurik zegoena, orain esnatzen eta birpizten ari da, herri industriaztatuetan ere bai.

Duela mende bat hizkuntzaren egoera guztiz ezberdina zen. Orduan ehuneko berrogeita hamaik galeseraz hitz egiten zuten.

Konparaketa hau egitean, guztiok, seguru nago, Euskal Herriaren problematikaz pentsatzen ari gara. Harrigarria da benetan, zenbait arazori buruz, Euskal Herriak eta Gales Herriak dauzkaten kide-tasunak. Zabalea, bizilagunen kopurua, hizkuntzaren gorabehera etab. Zoritzarrez elkarren arteko harremanak oso gutti dira eta berauk ugaltzea denok desideratuko genuke. Hala ere, gauzak hobeki ulertzeko, eta balioztapen zuzen bat egiteko, zenbait puntu argitu beharren gaude. Hona hemen: A) Ez dute diktadurarik pairatu. B) Ez dute gerrarik

egin. C) Kontsumozko gizartea eta burjes demokrazia, han Euskal Herrian baino askoz lehenago sortu zen.

## HERRIKO HIZKUNTZA ETA KULTURARI BURUZKO HISTORIA LABUR BAT.

Gales-literatura nahiko zaharra da. Euskararena baino askoz zaharragoa. Seigarren mendean badaude lehenengo arrastoak. Hala eta guztiz, hiru mendez geroago, lehenengo eskribu eta obrak aurkitzen dira. Zahartasun honen arrazoia sinplea da. Garai haretan Gales Herria, eta orain ere bai, latinetik ez zetozen hizkuntzez inguraturik zegoen eta dakigunez Latina zen orduan Europako mendebaldeko kulturaren hizkuntza. Hau dela eta, latin eremutik kanpo kokaturik zegoen, beraren eraginpetik baztertua. Galestarrak, bertako botere politikoren besean eta agindupean aurkitzen ziren. Geroago XII mendearan inguruan etxeko botere politikoa hau, gero eta gehiago deseginez doa, Ingalaterrako erregeek Gales guztia suntsitu arte. Ordurarte, Administralgorako kontuak, nobleziaren arteko harremanak, eskribuak, legeak, galeseraz agertzen dira. Ordutik aurrera, frantsesez lehenengoz, eta ingelesez gero agertuko dira. Noblezia kanpotarren modu honi jarraituko zaio beraren burua ingelestatu arte.

Esaten ohi da, Gales herriaren historia, beronen hizkuntzarena da.

Izan ere, "iaith" berbak bi zentzu ditu. Bata hizkuntza, bestea herria edo nazioa. Kasu hau, guk uste arren, ez da Euskal Herriarena bakarrik izan. Europako keltar hizkuntza guztietan sinonimotzat jotzen da herria eta hizkuntza. Gales literaturaz ari garelarik, galeseraz idatzitako lehenengo biblia bostehun eta larogeita zortzigarren urtean (1587). an publikatu zela jakiteak merezi du. (1). Garai honetan jadanik, judizial hauzietan, politik biltzarretan, administralgorako edozein gauzatan galeseraz egitea debekaturik zegoen. Ingalaterrako koroarentzako iraintzat hartua izaten zen. Gure Euskal Herrian bezala galesdun ausartiak gartzeletara zeramatzen. Herri apalak, bitaretean, galesera bakarrik ezagutzen zuten eta galeseraz ematen zitzaion erlijioa. Garai honetako idazleak elizgizonak izaten ziren. Gales Herriaren kultura elizgizonen eskuetan zetzan eta, beraien bidez kultura oso bat iragaten baitzen. Herriaren lanbideak lurlangintza eta abeltzantzan zeuden. Gales Herriaren lurra pobre eta gutiziatugabekoa zen. Unibertsitatek ez, zegoen kultur elkarerik ere ez, eta zeudenak,

(1) Leizarragak berea, euskaraz 1571.ean argitaratu zuen.

atzerritar hizkuntzaz eta bertako jauntxokeriaz beteak ziren. Baina XIX. mendearen bukaeran panorama idilikoa goitik behera aldatuko zen bat batean. Meatzeek, industriek, inmigrazioak, aldutuko dute. Milaka eta milaka langile datoz inguruko herrialdeetatik. Maisuak, maistrak, denak ezgalesdunak, funtzionariak, merkataria etab. Eskoletan gure erhaztun berbera erabiliko da eta erhaztuna nahiko ez denean zigorra ere bai. Larogei urtetik hona gehiengoaren hizkuntza minorien hizkuntza bilakatzen da. Ba dirudi benetan gure historia kopiatu digutela edo bestela guk haiena. Baina historia hau, botere politikorik ez daukaten herri guztien historia da.



Gales herria eta Britainia handia

Gauzak honela, 1922 urtean gure "PNV". modukoa sortzen da. Galeseraz "Plaid Cymru" baina the Welsh Nationalist Party izenaz ezagunagoa. Alderdi hori nolakoa deneta zein ideologiatan finkatzen den esatean soberan dago, aski ezaguna dugu geure P.N.V. horretarako. Baina orduko Euskal Herriaren politik arloa eta Gales Herriarena ez dira berdin. Hemendik aurrera, gauzak aldatuko dira. The Labour party-k (P.S.) ez du aurrez aurrez jarrea antigalesik hartuko. Ez da aurrez Gales herriaren kontra joango, politika kriolo bat praktikatuz. Ez da P.S.O.E. gisan erdirakoi porrokatua izanen. Beronen orduko politika, gaur egun PSOEK

duen politikaren konpara daiteke: "Esan bai, baina egin ez" izanen dute kontsigna politikoa. W.N.P.ak ez du indarrrik asko edukiko mila bederatzehun eta berrogeita hamasei urtera arte. Indarra hartzeko, teoria mailan erdibazterturik zeuzkan hitz poto-loak praktikatzen saiatzen da. Ezkerralderago jotzen du hango PSOeri politik espazioa kenduz. Commonwealth osotzen duten herrien artean subiranotasuna eskatzen du. Nazio Batuetan errepresentapena eduki nahi du. Guztiau eskatzeko duen arrazoi bakarra ez du historian ipitzen, hizkuntzaren larritasunean topatzen dute arrazoiak. Gerorago parlamental joko fruitugabeko batetan sartzen dira, lehengo kontsignak ahaztuz, eta histori arrazoiak bilatu nahian. Hizkuntzaren arazoari parlamental jokoek ez diote mozkinik asko ekartzen; jendea eta batez ere gazteria asper-tuz eta nekatzuz doa.


#### DATA HISTORIKO BAT

Mila bederatzehun eta hirurogeita bigarren urtean (1962) Otsailaren 21an, B.B.C. bidez, Gales Akademiako hizkuntzalari eta poeta famatu batek, hizkuntzaren egoerari buruz programa bat galeseraz egitea lortzen du. Bertan azaltzen duena gogorra da. Hona hemen haren hitzaldiaren pasarte batzu:

"... Seguru gaude; oraingo egoera hau aurrera joanez gero, datorren menderako edo mende honetako azken urteetarako, galesera, hizkuntza hila izanen da. Ba al dago itxaropenik? Ez, ... ez dago itxaropenik. Menderen mendetan gure arbasoengandik harturiko politik tradizioak eta gaurko ekonomiaren abiaturak ez datoz gure hizkuntzarekin batera, danak hizkuntzaren superbizipenaren kontra dira. Inork ezin alda dezake egoera hau, galesDUNen ausartziak izan ezik. Indarra, burruka, sakrifizioa eta ahalegin guztiak eskatzen dituen ausartziak, ez bestek, saiba dezake bi mila urteko historia ... hizkuntza saiba dezakegu. GalesDUN herriak eta eskualdeak ba daude oraindik. Bertan, kanpaina oso bat antolatuta behar gaude. Gure burruka desesperantzaren kontrako burruka izan behar da. Eska ezauze elebitasuna. Orain eta bertan, kaleko izenak apurtuz... kamino eta autobideetako letreroak pintatuz eta izorratuz, ingelesez dau den paper ofizialak, kontribuzioak, zerga, munda, bankuletrak ez ordainduz. Eska ezauze galesera fabriketan, postetxeetan, hondartzetan, kiroltan aireportuetan, polizi komisaldegietan... esaten badizuete gure jarrera hau eta ingeles demokrazia ez doazela batera herri honetan ez dagoela inolako gales demokraziarik, erantzun behar duzue. Baldin esango didazue honelako kanpaina apurtzaille eta gogorra egiteko medio eta biderrik ez dugula. Beharbada arrazoiak izanango duzue. Saia gaitezen%. Kanpaina ongi abiatuz gero, kritikak eta tiroak alde guztietatik helduko zaizkigu. Ez beldurrik izan. Industriak eta fabrikak kanpora joango direla esango dizuete, gure ekonomia gero eta pobreago izanen dela,....

leku guztietatik, ideologia guztietatik atakatuko gaituzte... prentsa ere haien eskuetan daukate eta; ...Ba dakit oso zaila dela nik eskatzen ari natzai-zuena. Erreboluzio bera egitea eskatzen ari natzai-zue”.

Berehela, “*Cymdeithas yr Iaith Gymraeg*”(Gales hizkuntzaren aldeko elkarte) sortzen da.- Galesdun besterik ez den tokian, estudiantez eta langile gaztez osaturik geratzen da lehengo epean. Beraien abiaburu soila ekintza eta ekintza izanen da. Gales Herriko gartzelak haien militantez beteko dira. Lehengo epean galesdun herria begirale on bat izanen dute. Gero herri guztiaren nahi eta eginbehar praktikoa bilakatuko da.



### GALES HERRIAN ELEBITASUNA KONKISTATZEKO ERABILI DIREN BIDEAK

1963.ko Otsailean.- Cardiganshir-eko hauzitegian galesdun bat tribunaletara eramaten dute. Hauzia galeseraz egiteko eskribu bidez ekatzen da. Tribunalak eskaria ez du kontutan hartzen eta mesprezatu egiten du. Elkartekoek hauzi gela okupatzen dute. Judizioa ezin egin. Atxilotuak ugari.

1964.ko.Urtarrilean.-Zenbait galesdun gurasok ez diete seme alabei izenik ipintzen, ez eta beraien jaiotzaren berriak ematen, udaletxeetan paper ofizialak eta zertifikatuak galeseraz egin arte. Mundak ugari.

1964.ko Ekainean.- Unibertsitateko estudiantek greban. Bertan galesera onhartu eta diplomak galeseraz eman arte. Geroago gose greba egiten dute.

-Herrialde bateko adierazgailu guztiak apurturik eta pintaturik agertzen dira. Atxilotuak.

-Zirkulatzeko munduak ez pagatzea erabakitzen dute, paperak galeseraz agertu arte.

-Uraren, argiaren eta telefonoaren errezibuak ez dira pagatzen. Galesdun herrialdean ekintza hau oso onhartua izan da. Jendeek gero eta guttiago pagatzen dute.

1965.-

Postetxeak, telefonetxeak, udaletxeak, bankuak, notaritzak, klinikak, supermerkatuak, eskolak eta erostetxe handiak alde guztietatik zehar okupatzen dira. Galesdun herri eta hirietan batez ere.

Mundak eta atxilotuak ugari. Zergak ez dira pagatzen. Mundak (Berak ez dira pagatzen). Atxilotuak.

-Herrialde guztietako adierazgailuak pintaturik agertzen dira.

700 atxilotu.

1968.-

-Telebistaren estudioak okupatzen dira. BBCren estudioak barrutik eta kaletik okupatzen dira. Telebistaren antenak birritzen dira. Manchesterren (Ingalaterran) Granada Telebistaren estudioak triskatzen dituzte.

-Britainia Haundiko goberna elkartekoekin harremanetan sartzen da.

-Manifestaldiak, telebista eta irratia galeseraz soilik ere edukitzeko.

1969

Kanpaina guztia gogortuz



Telephonetxe batetako lehengo okupazio baketsua

1970  
1971  
1972  
1973

herriak parte hartuz. Telebis-  
ta ren zergak ere ez dira paga-  
tzen (2). Gauza bera, bankule-  
trak, expedienteak, kontribu-  
zioak etab. Galesdun herri eta  
hiritan gurasoek ez dituzte  
beraien haurrak eskolara era-  
maten.

- h) Liburu publikatuen kopurua 1965. urtean 23;  
1975. urtean 300;1976.ean 355. Subentzioak,  
Estatutik harturiko launtza. Otik 4.000.000  
ptara dator.
- i) Aldizkariak 2tik 70 raino.
- j) 20 gales-ulpanak zabaltzen dira.

#### EUSKAL HERRIAREKIN KONPARAKETAN

#### BURRUKA BIDEZ GAUR LORTU DUTENA.

- a) Elebitasun osoa, Galesdun herrietan lehengo  
hizkuntza galesera izanik. Inglesa egiten duten  
herrietan hizkuntzaren egoera lehen baino ho-  
bea.
- b) Irakaskuntzan galesera irakastea beharrezkoa  
da. Galesdun herrietan gurasoen borondataren  
arauera galeseraz ematen dira gai guztiak. In-  
geleseaz hitz egiten duten herrietan hizkuntza-  
ren beharra handituz doa; ikasketa guztiak ga-  
leseraz egin daitezke.
- c) Postan, Bankuetan, Supermerkatuetan, telefo-  
noetan elebitasun osoa. Edozein operadore-  
ekin posible da galesera erabiltzea zenbaki be-  
rezi bat markatuz.
- d) Judizioak galeseraz. Administralgoko edozein  
gauzatarako galesera erabil daiteke. Paper ofi-  
zial guztiak, bi hizkuntzetan eskribaturik dau-  
de. Mundak eta zergak ere!!
- e) Bi irrati osorik galeseraz. Beste bitan elebita-  
suna erabiltzen da.
- f) 25 ORDU galeseraz TELEBISTAN ASTERO.  
(Hiru kanale daude). Hiruurretan zenbait ordu-  
tan, hizkuntza erraza erabiltzen dute. Klaseak  
ere ematen dira.
- g) Ingeleseaz, frantsesez mintzaten diren zenbait  
filmeak galeserazko azpтитuluekin datoz.

Egia ere ba da, beste herrietan txakurrak or-  
tozik ibiltzen direla sarri, eta hotsak hamabost izan  
arren, intzaurrak, zoritxarrez, maizegi bost besterik  
ez direla izaten. Hizkuntz arloan galestarrek lortu-  
riko aurrerapen hauek, beren mintzaira oraino era-  
biltzen zen tokietan izan dute eraginik bortitzena,  
ez horrenbeste, aldiz hiri aspaldidanik ingelestue-  
tan. Okerrago dena, hizkuntz aurrerapenok ez du-  
te, paraleloki, politikan behar adinako oihartzunik  
izan, eta itsuenak ere ba dakusa ez dela posible  
kultur autonomia egiazkorik, parean ekonomia eta  
politikan egiazko autonomiarik ez baldin badago;  
eta berak gabe, nazio askatasuna fikziozkoa dela.

Euskaldunok herri kontzientzia nazional han-  
diagoa dugu galestarrek baino. Hau uka ezina da.  
Ez legoke gaizki, ordea, pertsona konkretu eta  
bakar baten askatasunaren alde gure hizkuntzaren  
ofizialtasun osoaren alde, unibertsital barruti  
euskaldunaren defentsan, gutienezko autonomia  
nahikoaren alde eta gisa honetako arazo larriago,  
inportanteago eta premiazkoagoeta ere, eta batez  
ere, erabiltzea.

Burrukak, euskaldun kontzientziatuon burru-  
kak, ez beste, ekarriko digu, orain arte bezala, nahi  
eta behar duguna. Ez da, ez, erraza izanen, baina  
ezina ere ez; eta ezina balitz ere, ezina, euskaldu-  
nontzat, ekinez egina.

Tomas Trifol

(2) Anuntzio Komertzialak debekaturik daude telebistan.

Bibliografia: Meic STEPHENS, Linguistic minori-  
ties in western Europe, Gomer Press, Wales, 1976.



# NAZIOARTEKOAK LABURKI

## Multinazionalak

Munduko lehen 50 industri elkarte indartsuenen artean, USAko 24 aurkitzen dira, Alemaniako 7, Japoniako 4 eta Britainia Handiko beste 4.

Bloke indartsuena USAkoa da noski eta Europakoaren aurrez aurre jartzen ari da Japonian. Multinazional hauen indar ekonomikoaren ideia bat egiteko, pentsa dezagun, esate baterako, "Exxon Corporation" munduko lehen firmaren negozio zifrak Espainiako produktu nazionala baino handiagoak direla; General Motors-en pisu ekonomikoa Herbehereetakoaren parean jar dezakegula; Nippon Steel eta Us Steel-ek Frantziak adina altzairu fabrikatzen duela bakoitzak.


Elkarteon finantza zuzendariek Finantza ministru askok baino agintza gehiago dute, noski, edonork pentsa dezakeen bezala. Zorrak debaluapen bidean doazen dirutan apuntatuko dituzte eta hartzekoak diru indartsuenetan. "Mugen gairdik" daude egon ere eta. Gure ekonomi inflazioen sustraietako bat hortik aurkitu behar da noski.

## Lur barneko energia

Energia fosilak agortuz doaz. Gaur energia bila haizeetara, eguzkira, mareetara, itsas sagailera eta atomo fusiora jo behar da. Eta lur barneko energiara.

Britainia Handiko inguru Ministraritzak 75.000 liberaz subentzionatu du haize erroten projektua (The Times 4/08/77). Geotermiari 840.000 libera eman dizkio eta itsas energiarentzat 2'5 milioi libera. Eguzkitiko energiari berriz 3'6 milioi libera luzatu dizkio. Kexu dira haize energia probetxatu nahirik dabiltzanak, hain subentzio ttipia ikusita; diotenez, Britainia Handiak behar duen elektrizitatearen laurdena sortu ahal izango lukete, 400 errotatako 12 talde sortuz.

Gaurkoz, aipu berezia, geotermiari egingo diogu. Hau izan baitzen gizakiak beretzat erabili duen lehen energia moeta (gaur aipatu ditugunetan). Oraindik gurrilik ez zenean —energia eoliko nahiz hidraulikorik ere ez be-



raz—, iturri berotako kaloriak probetxatzen zituen gizakiak. Egun ere oraindik ikus daitezkeen bezala, arrainak eta beste janariak ur bero horietan egosten zituzten, behin gradu askotara helduz gero behintzat.

Lurraren barneari gagozkio- la, ba dakigu han bero handiak direla. Mea zuloetan zenbat eta barnago sartu, are eta beroago. Temperatura 1o. C. igan dadin normalki 33 metro jaistea beharrezko bada ere, zenbaitetan ha-

mar aldiz lehenago igaten da. Zulo horietan sartu gabe ere, lur azalean galtzen den bero fluxu guztia probetxatuko bagen (Km2-ko 50-60 Kw) aski gabe nuke beste gabe. Hori baita munduan energiaren gastatzen duguna. Baina bero hori ezin bil dezakegu, hain hedatua izanik.

Lur azaleraino heltzen diren ur eta lurrinak aspaldidanik probetxatzen dira. Erromatarren termak, esate baterako, iturri beroz elikatuak zeuden. Egun ere, Islandiaren erdia ur hauan bidean berotua dago. Baina geotermi energiari normalena eta hedatuena, ia bazter guztietan hedatua baitago, 1.300-1.500 metro tara aurkitzen diren urmaelena da. 50o. C. edo areago eduki dezakete. Eta sarritan erabiltzen dira berogailuetarako, igertokietarako, negutegietarako... Pariseko Maison de la Radio eta zenbait igertoki horrela girotuak daude.

Etorkizun hurbil batetarako normalizatzen ikusiko dugu energiaren iturri hau.


Iturriok bestalde ez duta agortu behar. Urmaelaren aldetik ateratzen den ur beroa bestaldetik injektatuko da, hoztuta eta gero.

## Nekazarien buruhausteak

Gure lehengo baserriarrek gutti salduko zuten, baina eror-







ere neurritz egingo zizuten. Ziklo hertsu bat osatzen zen baserriko landaren eta abereen artean: abereei landareak eman janaritzat eta haien simaur-isuriz soro-zelaiak ongarrizta. Gainera, baserriko soro eta zelaiak beti aldatzen ikusiko zenituen: orain indabak dauken tokian hurrengoan zelaia, eta horrela, lurra erabat txiro ez zedin, nitrogenotan batez ere.

Egun, asko gastatzen dute ongarrri, ureztapen, petrolio eta izurrizidetan, "Gero irabaziko bada, lehenik gastatu egin behar": horra, baserritarrek ikasi duten lezio gogorra. Gogorregia, beharbada, ondorenak ez baitira argiegi ikusten.

Ipar Ameriketara, azken 25 urteotan, hirukoiztu egin da artotatik gastatutako energia; artoaren produktzioa berriz, bikoiztu besterik ez da egin. Galerazko transformazioa benetan! Baina, energia galera hau nabarmenagoa da transformazioa haragitaraino luzatzen denean. Guk xerratan jaten dugun kaloria bakoitza, nekazariari 10etik 20 kaloriatara kostatu zaio aurretik. Traktoreak eta ongarrriak erostean zer pentsa ematekoa da hau.

#### Pariseko txolarrea

Hamida Djandouti-ri ez zitzaion azken xigarroa erretzen

utzi. Gilotinaz lepoa ebaki ziotenean lanunbat goizeko hiru t'erdia ziren Beaumettes-eko presondegi euskaldunentzat ezagunean. Egun berean, ordu bertsuan Vitteaux-ko botikari batek Winchester batez erhan zuen botikara ohostera sartu zitzaizkion bi mutiletako bat. Parisen ezin duzu gauetz botika irekirik aurkitu. Urtero komisaldegira 1.500 bortxapen kexa heltzen diren eta 200-300 bortxatzaile epaitzen den hirian, beldurrez somatuko dituzu neskak bakartiak gaueko ordu aurreratuetan.

Piarrot Conty, Ardeche-ko komuna batetan 1969. ez geroztik bizi izan den Grenobleko langile izandakoa, Ardecheko erhaiketaren lehen lekukotzat bilatua eta pertsekutatua da.

Frantzia Estatuko Ezkerrak, agintera heltzen denetik urtebetera 500.000 lanpostu sortu behar baditu, ongi etorriak izan bitzez, Parisen bertan 110.000 aurkitzen baitira enplegu barik. Hiri honetako lehen 10 distrituek (20 dira guztira) milioi erdi jende hartzen duen bitartean, gainerantzekoek doblea eta gehiago hartu behar dute.

Suediako Hegoaldean eta Kopenhagenen aurrez aurre aurkitzen den Barsebach-eko zentralaren aurka 15 mila inguru suediar, daniar, finlandiar eta


norvegiar manifestatu dira. Frantziako talde ekoiogikoak ere joan dira. Baina, zer da Frantzia?. Denis Rougemont-ek estatu-nazioen aurkako liburu bat idatzi berria du eta korsikako abertzaleek hainbat galdera egin dizkiete Frantzia Estatuko ezker erakundeek. Eta bazter guztietan Euskal Herriaren ahotsa estali egin nahi da. Parisen tabu da, erre egiten du. Eta Ipar Euskadiren geroa gestionatzen dutenek, tutik ere ez dute sentitzen hura.

Udamuga eder honetan Paris loratua dago. Metro pasiloetako kantariak eta zentru Pompidou ondoko artistak, Sena ertzeke bukinistak eta St. Germain Bulebard inguruko mila eta bat restaurante. Luxemburgoko parke eta Vincenneseko zootokia. Notre Dame-ko turistak ere bai. Baina, "Notre Dame ez da museo bat, eliza bat baizik".

Eta guztiaren hondoan, sakonaren sakonean, zoragarrienik zoragarriena, Benito Lertxundiren musika. Neil Diamond-enarekin batera.

KLAUDIO

# NEUTRON LEHERGAILUA



*Uda aldean hainbat artikulu idatzi izan dira munduan zehar, amerikarrek bultzatu nahi duten neutron harma beldurgarriari buruz. Informazio harrigarriak ere eman izan dira: gizonak hil baina etxeei eta landareei ez diela kalterik egiten, eta antzeko gauzak entzun ditugu. Esandako gauza horik, zertan daude zuzen eta zertan oker? Zer demontre ote da eta nola funtzionatzen ote du neutron lehergailu horrek? Artikulu honetan galdera horiei erantzutera saiatuko gara, halaber harmen arazoaren inguruko hipokrisia salhatuz.*

Beren eritzi propioan, Amerikako Estatu Batuak munduko bakearen zaintzaile zintzoak dira. Eta beraien burua den Carter jaunak, Varsoviako elkarteko estatu "gaiztoen" asmo arriskugarriari aurka egiteko edo, biderik onena beldur egitea dela pentsatu du, eta horretarako harma berezi bat fabrikatzeko plangintza bultzatu du. Horrela, 1979.etik aurrera, OTANeko Lance izeneko misil taktikoak, neutron lehergailuz ekipaturik egonen dira.

## LEHERGAILU HAU NOIZDANIKOA DEN

Hala ere, orain berri bezala aipatu den harma hau, aspaldidanik ezagutzen da. Lehen saio eta eztabaidak 1958. urte inguruan egin ziren, eta urte horretan bertan, horrelako baten lehen leherketa burutu zen.

Hasiera batetan, saio horik guztiz sekretuan gorde ziren. Sekretua 1961. urtean hautsi zen, baina ez zitzaion garrantzi handiegirik eman izan, beste harma bortitzago eta beldurgarriago batzu baitzeuden, hala nola H lehergailua. Dena den, ordurako harma taktiko posible bezala kontsideraturik ze goen.

Orain, errebotez, militarren interes taktikoa dela eta, berriro ere garrantzi handia hartu du. Hara! SALT II izeneko elkarrizketak direla eta, men-debaldeko bi bloke militar nagusiek mugatu eginen dute beren harma estrategioko kopurua; ez, ordea, harma taktikoena. Horrela, ba, neutron lehergailuaren kontrola elkarrizketa horien kontroletik kanpo geratzen da. Eta harma hau duten bakarrak amerikarrak direnez, berauek presio eta beldur egiteko elementu gisa erabiliko dute.



## LEHERGAILU HAU ZER ETA NOLAKOA DEN

Seguruen, guztiok dakizue A eta H lehergailuak zer diren eta nola funtzionatzen duten. Dena den, horien azalpen labur bat eginen dut ez dakitenentzat.

A lehergailuaren kasuan, plutonioaren fisioa probetxatzen da (zentrale nuklearren kasuaren antzera), hau da, neutroien bidez plutonio atomoak zatitzen dira, katen erreakzio bat sortuz; horrela energia izugarria askatzen da bapatean.

H lehergailuaren kasuan, alderantzizko prozesua eramaten da, fusioa halebategia, hidrogeno atomo bitaz (tritio eta deuterio isotopoak) atomo bakar bat lortuz (helioa). Horrela are energia gehiago askatzen da masa unitateko. Hala ere lehergailu honen problema batzu ditu funtzionatzeko. Hidrogeno atomoak elkarrekin fusioa daitezten, tenperatura eta presio izugarri handiak lortu behar dira, eta, horregatik, lehen pauso gisa, A lehergailua erabiltzen da baldintza berezi horik lortzeko. Beraz, A lehergailuaren leherketaz presio eta tenperatur baldintza egokiak sortzen dira, eta berehala hidrogenoaren fisioa lortzen da: H lehergailu izugarria halebategia. Hitz batez, H lehergailuak A lehergailuaren premia du, detonagailu gisa jokatzeneko.

Neutron lehergailua, izatez, H lehergailuaren antzerakoa da, fusioan finkatzen baita. Baina presio eta tenperatur baldintza egokiak lortzeko, ez du A lehergailurik erabiltzen, trinitrotoluenoaren (TNT) leherketa baizik. TNT asko behar da horretarako, prezeski, 100 kg TNT tritioaren kantitateak



A: Leherketa ondorengo 5 minututan, paralisia. Gero egun bat edo bitan heriotzea.  
 B: Leherketa ondorengo 5 minututan pertsonak paralizaturik geratzen dira. Gero errekeratu egiten dira 4 edo 6. egunean hiltzeko.  
 C: Bi ordutan edo paralisi partziala. Gero bi astetan edo, heriotzea. Laguntza medikoarekin, bizitzeko posibilitatea dago.  
 D: 50o/o kasutan, heriotzea dator lehen asteetan.

ongi neurtuz deusezte efektu ttikiagoak lortzen dira (TNT delakoarenak batez ere); ordea, fusio termonuklearren kausak neutron irradiapen izugarria lortzen da, eta irradiapen honen eragina, deusezte efektuena baino askoz ere urrunago hedatzen da. Ikusi denez, proportzioan, neutron lehergailuak A lehergailuak baino 10 aldiz irradiapen neutroniko gehiago sortzen du. Gainera, horrelako lehergailuak energia ttikitakoak izan daitezke —besteenarekin konparatuz, noski— eta hori ere abantaila bat da, harma taktiko gisa hartuak izateko.

**NEUTRON LEHERGAILUAREN ONDORIOAK**

Esan dugunez, A lehergailuak eta neutron lehergailuak ez dituzte ondorio berdinak sortzen. A lehergailuaren efektu nagusiak termiko eta deuseztaileak dira. Neutron lehergailuarena ordea, neutronen irradiapena da. Hau argi ikus daiteke alboan jarri dugun eskeman. Bertan 50 kt-eta 1 kt- (kt= kiloton= 1000 tonelada TNT-ren energia) A lehergailu baten eta 1 kt-eta 1 neutron lehergailu baten efektuak konparatzen dira, leherketa puntutiko distantziaren araura.

Eskema honetan ikusten denez, neutron lehergailuaren efektu termiko eta deuseztaileak ttikiak dira —erlatiboki, noski— 200 metrotaraino baino ez baitira heltzen. Tximinoekin egindako saiok frogatu dutenez, ordea, 1400 metrotaraino hedatzen dira gogorki neutron irradiapenaren ondorio hilgarriak, kalterik gogorrena zerebroan egiten delarik. Gertakari erlatibo honetatik sortu da, hor zehar zabalduko interpretazio okerra, hau da, lehergailu

honek gizonak hil baina etxeak eta pasaia ez duela desegiten. Desegiten ditu, noski, baina erradio ttikiago batetan eta A lehergailuak baino neurri ttikiagoan.

**HERIOTZE TAKTIKOA ETA HERIOTZE ESTRATEGIKOA: TXAKUR BERBERA IDUNENKO DESBERDINEZ**

Hipokrisiaren hipokrisia! Esan dugunez, SALT II elkarrizketetan harma taktiko eta estrategikoen desberdintasuna markatzen da; eta estrategikoak mugatzen diren bitartean, taktikoak libre uzten dira. Nolabait esateko, zilegitzat jotzen da taktikoki hiltzea, baina ez, estrategikoki hiltzea. Semantika kontua. Hipokrisia hutsa.

Gainera, lehergailu horren atzetik ezkututzen den filosofian, gauzek —etxeek eta produkzio medioek— pertsonak baino balio eta interes gehiago dutela dirudi. Pertsonak hiltzea ondo dago, baina mesedez ez egizue etxe askorik apurtu. Hori dela eta, askoren eriztiz, lehergailu hau kapitalisten mentalitatearen fineziaren eta asmamenaren azken lorpen gisa kontsideratua izan da.

A! Baina ez dugu hau ahantzi behar. Hori guztiori, asmorik onenarekin eta mendebaldeko —eta munduko— bakea jagotearren egiten dute. Bai horixe!

J.R. Etxebarria

Aldizkari hau irakurri nahi baduzu, bete ezazu argi argi  
ondoko txartela eta bidal helbide hontera:

**ANAITASUNA**

Zabalbide, 68., Bilbo - 6

Posta kaxa: 495, Tfnoak: 433 58 00 - 09 - 08 - 07

**Izen-deiturak** .....

**Bizilekua** .....

**Herria** .....

**Probintzia** ..... **Tel** .....

---

# anaitasuna

Bizkaia  
hamabosterokoa

**ZUZENDARIA:**

Joan Mari Torrealday

**Urteko abonamendua:**

Bertorako	.....	700	pezeta
Latin Amerikarako	.....	800	pezeta
Europa eta Ipar Amerikarako	.....	900	pezeta

**Ale bakoitza:** 35 pezeta

---

Donostiako estiloa.

# AUZMENDI



**AUZMENDI, Sastre. Vergara I.**



# musika

## INTERNAZIONALA EUSKARAZ

Gabriel Arestik, hil baino urte batzu lehenago, sozialisten nazioarteko hymnoa euskaraz jarri zuen. Gure Internazionala, lehenik Pariseko batzarre sozialista batetan argitaratu izan zen, duela zenbait urte, beste hizkuntzetako itzulpenekin batera. Geroago hemen ere argitara emana izan da nonbait, baina, dena den, guti, gutiegi ezaguna dugu hura euskaldunok. Hori dela eta, euskaldun sozialistok, besterik ezean, erdaraz kantatu behar ukan dugu internazionala, gure lotsarako.

Hori zuzendu nahirik, hementxe ematen dugu argitara Gabrielelek egindako itzulpen zehatz, poetiko eta bikaina, guztiok, euskaldun sozialista garen guztiok behinik behin, ikas dezagun. Ea kantariren bat anima eta diskotan ere laster entzuteko era dugun.

## INTERNAZIONALA

*Zutik! lurrean kondenatu  
zaren langile tristea!  
Nekez ginen elkarganatu.  
Indazu albiristea!*

*Gertatuak ez du ardura.  
Jende esklabua, jaiki!  
Aldaketak datoz mundura.  
Nor den herriak ba daki.*

*Oro gudura, hala!  
Bihar izan dadin  
Internazionala (birritan)  
gizonaren adin.*

*Goitik ez dator salbatzerik:  
jainkorik, ez erregea...  
Gu ez gaitzake gal azerik.  
Hau da gizonen legea!*

*Lapurra xeha dadin edo  
har dezan bere zoria,  
hauspoa eraginez gero,  
jo bedi burdin-goria!*

*Oro gudura, hala!  
bihar izan dadin  
Internazionala (birritan)  
gizonaren adin.*

*Bere zeruan atseginez  
aberatsak ez du gaitzik:  
zer egin du, egarrimenez  
lana arrotatu baizik?*

*Gaiztaginen kutxetan dago  
gure lanaren fruitua  
hartuko dugu gehiago:  
zorra eta korritua!*

*Oro gudura, hala!  
Bihar izan dadin  
Internazionala (birritan)  
gizonaren adin.*

*Estatuak hondatzen gaitu  
bere tribut berriekin  
aberatsa gizentzen baitu  
pobreen izerdiekin.*

*Asko zurrupatu gaituzte;  
berdingoaren izenak  
berdin omen zituen uste  
beharrak eta zuzenak.*

*Oro gudura, hala!  
Bihar izan dadin  
Internazionala (birritan)  
Gizonaren adin.*

*Soldaduek ere eginen  
dute protesta ederra!  
Tiranoaz herabe ginen!  
Guri bake, hari gerra!*

*Baldin jan nahi bagaitu gu,  
herriaren haragiak,  
tirokatu behar ditugu  
beraren buruzagiak.*

*Oro gudura, hala!  
bihar izan dadin  
Internazionala (birritan)  
gizonaren adin.*

*langile- nekazari, gara  
alderdi trabailaria  
lurra gure herentzia da.  
Hil bedi harraparia!*

*Bela-putre gaitzak gogara  
haragiak ase dira.  
Ihesi doaz, eta hara  
eguzkiaren dirdira!*

*Oro gudura, hala!  
Bihar izan dadin  
Internazionala (birritan)  
Gizonaren adin.*

## ZIUTATEAZ

“Nahiz eta nik neure bihotza zabaldu, ba dakit hori ez dela nahikoa; konprenitzen dut urrun dauden bihotz eta gorputzen maitasuna antzua dela, gezurra dela, amodiozko gutunak faltsuak diren bezala. Konprenitzen dut ez dela posible elkar inguratze espiritualik inguratze fisikorik ez bada, hitz batetan esanda, konfiantza proximitatea da, eta maitatzea hurbiltze emaigabe bat. Baten larruak bestearena igurtzi duenean, arnasak nahasten direnean, odolak odolari entzuten dionean, farrak akorde baten gisa sortzen direnean, malko guztiak hibaiama berberan kanalizatzen direnean, orduan, ordutxe bertan, jaten du bihotz batek bestea, ongi konprenitu dut egia honen zientifikotasuna, nik asko pentsatzen dut, ni ez naiz edonor”.

Egia esan, sekula ez naiz ausartu idazle on bat zer den zehatz mehatz defini —eta mugatzen. Eta seguru asko inoiz ere ez naiz ausartuko. Edozer dela baina, esan behar dut honelako egia izugarriak hain modu ederraz doan batek zeredozer izan behar dukeela, zerbait behar duela bere barnean eduki, eta barruko hori alde edo moldez adieratzeko, hemengo era txaira eta samurrez, zer edozerk ere behar duela bere jabe ukan.

Irakurketa bi egin eta gero Bernardo Atxagaren bi liburukitan banaturiko obra honetaz zenbait iruzkin egin gura dut, niri irakurleoni gertatu zaikidan berri eta adierazpen baizik izan nahi ez direnak. Ez dut esanen ez dudala aurreritziarik literaturazko obrak juzkatu orduko eta gustatzeko paradan, hala ere, eta bat ere beldurrik gabe esan dezaket, Txehov-en antzera uste dut, nik literatura, eta literatur kritika beraz, bi zatitan banatzen dudala, gustatzen zaidana eta gustatu egiten ez zaidana. Ho-

regatik, hain zuzen, “Ziutateaz” ona dela esateko eskubidea dudala uste dut, gustatzen zaidan obra bat delako. Eta ez dut ukatzen erizpide honen erlatibotasuna, edo eta eraltibokeria, nire lagun batek darabilgun obra hauxe berau eskuetatik jausten zizaiola aitor ukan baintzidan.

Kriselu argiletxea da liburuaren, hobeto esan, bi liburukien emalea. Lan apain bat egin digula ez da esan gabe utz daitekeen zerbait. Ba dira horregatio, guti izanik ere, zenbait ortografiatzko errakuntza, moldizginarenak segurutik, baina edozein kasutan kontutan hartu behar direnak, horik ere gure argitarazioen maila, eta neurri batez irakurlearenganako begirunearen heina baitira, eta halaber euskal liburujaleen garaiak igaro ote direneko seinale gertatzen. Bestalde, halako argazki berezi eta atseginez hornituak daude liburukiak, egileak, nonbait, auke-ratuak. Oro har, argitaratzea polito egin dela justiazkoa da esatea, beste elementu txar zenbait al-bora uzten dugula.

Hiru eskaintza dauzka obrak, lehenengoa bere Maf gaztelau neska ederrari autoreak opa dion poematxo bat gaztelaniaz, amari bigarrena eta zortziko txikiez para sei bertso eder hirugarrena. Eder eta lazgarriak, obra guziaz bezala, desesperoaren adierazgarri, boterearen gogoetatze bat bide den lan-osoren etsenplu:

“nigatik putzu batean ito  
bitez gizon ohoretuak  
erori elizetako ormak  
lurra jo palaziuak  
antzutu bitez andereak  
betiko galdu bertsuak  
gehiago ez du merezi gure  
joera lastimosuak”

Apika poesian dauzkadan erizpide eta gustuengatik izan daiteke, baina hasereako bertso horik dira ene gustuko obran agertzen diren poemarik onenak, zeren egileak aurrean esan legez, poemak lan osotik zehar sakabanaturik baitaude, eta ipuinekin eta antzerkitxoarekin batasun bat baitaukate. Dena dela, Joe deritzon ipuinean, pertsonaia nagusiak bere maitañoari egiten dion bertsoa ere ohargarria da eta ohartzeko, erritmo, sendimendu eta imajinak direla bide.

Egia da (liburuaren) zatiak atalka eta beregain irakurri ahal direla, inori ez nioke hori baina gomendatuko. Elementu guztiak soka fin eta leun batez daude loturik, gorago esan dudana legez, idazlana boterearen hausnartze bat bada ere, horregatik hain zuzen, setaz eta indarrez, askatasunaren aldeko kantu eder bat gertatzen delako. Ezinaren deskribaketa bat da; ondikotz, lantzean behin apur bat irregularra. Tontortxo batzu bezalakoak suma daitezke irakurketan, itsumustuan hodeiek bezala zeruei hatzaparka egiten dieten gailurretara heltzen garelara.

Zalantzarik gabe, ipuinik onena ene aburuz, eta beste zatiak baino asko hobeagoa, Scardenalli



deituriko istorioa dugu. Horretan, lehenengo liburukian datorrena, gizakiak garen eskizofrenikoak maisukiro gaude marrazkitu —eta irudikaturik. Kondaketa haria lehen pertsonan eginda dago, eta zapaldu bat izatetik zapaltzailerik ikaragarriena izatera heltzen da narragilea, kondalaria. Ipuin horretan, liburuki bietan agertuko diren imajina eta mitoguztietan ematen zaie sarrera, pisu, aspergarri eta nekos inondikan ere gertatu gabe; hor egileak erritmoari benetan igarri diola, argi eta garbi, beldurrik gabe, esan dezakegu. Ipuina irakurtzen has eta Kafkaren desesperoren antzeko zerbait etedeteko gertu dago irakurlea. Atxagak, ordea, gogorragoa da, nazkagarriago, etsipen pertsonalearen irteera ere hersten du eta desesperantza nagusi bilakarazten, zeren hastepenean hain maitekor agertzen digun Scardenalli delako hori, hain makal eta bakarti agertzen digun berbera, piztiarik narda- eta okaztagarriena bihurtzen baitigu ezkenean.

Lehen liburuan gero agertzen den Bilintx teatroa dateke, seguru asko, flakezia gehienetako zatia obratxo osoan. Hori eta bigarren liburuan agertzen den Gómez izaneko ipuina. Eta hori diot, Bilintx delako zati teatrolean konduan (récit/relato) ematen den jautzia aski desegokia baita. Gómez-en kasuan, berriz, arrazoia osterantzekoa da. Errepika bat besterik ez dela ematen du, aurreko ipuinetan erabili den gaiaren errepika pobrea. Sendimendu horren funtsa behar bada deskribaketa moldean dartzake; narragilea bitan zatitzen da, bata eskutitzegilea, beraren idazkuntzaren berri ematen diguna, eta bestea eskutitz-egile horren berri ematen digun beste kondalaria. Gauza bera ere gaiaz esan daiteke, hots, jendeak eta gizakiak alatzeko asma daitezkeen modu, era eta bideen narrazio bat dela, eta horregatik, lehendik irakurri dena irakurriz gero, apur bat barroko, terminu honek hein batetan duen zentzu pejoratiboaz.

Azkenean Joe deritzon istorioa dugu aipatze-ar. Lehendabizikoz harrigarri gertatzen dena zera da, kondalariaren adizkera. Batetik, lehen pertsonan dagoela eginda, hika egiten da, kondalariaren, h.d., pertsonaia nagusiaren gogoetak bailiren, bestaldetik baina, helburu berberaz eta kondalari berak eztabadakaz egiten du. Egia esan ez dakit nola interpreta kontua. Agian nor bere buruari aldika dion estimua dateke adierazi nahi dena. Ez dakit. Istorio honetan, argi dago, gainerakoan, alakuntzen kontrako heilagora eta arrabotsa. Komisaldegia batetatik pasatu den bat baino gehiagok "ring" horretara igaten diren lau gizonak birbizi litzake bere oroimenean, azkenean agertzen den agure madarikatu hori bezala. Dena dago loturik, ondo loturik. Irteerarik ez dagoela esan nahi zaigu. Testua orain hiru bat urte idatzi dela jakinda, are ulerkorrago gerta daiteke seguru asko.

Gauza bera da azkenurreko testukoa, formalki aski landua, Theoren heriotzea kondatzen diguna, alegia. Bukatzeko agertzen den "amaiera artifiziala"ren esplikazioa trebrea dela aitortu behar dugu, irakurlea, oraino harridurarik geratzen bazaio, gehiago nahasteko bide edo eta galbide bat besterik ez delako, ipuin batek duen amaiera naturala guztiz artifizialdu egiten baita azken testu bezala agertzen diren hiru orrialde horiez.

Judizio orokor bat ematekotan, honelako erantzun jeneral bat botako nuke, hots, obra hau ikaragarriko irudimen-potentzia batez, zenbait a-hultze gora behera, idatziriko idazlan interesgarri eta ederra dela.

Azkenez ene eritziz idazle batek inolaz ere ezin ahantz dezakeen faktore bat aipatu gura nuke, hots, idazleak eredu izan behar dukeelakoarena. Horixe da izan, idazleak hizkuntzaren beste erabil-tzaileen bere mintzakideen eredu izan behar du. Hala uste dut nik behintzat, idazlea baita hizkuntzaren baliabide guztiak ageriko utzi behar dituena eta hiztun hilkoarentzat plazer eta mirespena sortu behar duena. Eta honetan bai duela Bernardok aparatu egin. Hizkuntza, darabilen literatur hizkera samurra da, bizkorra, arina eta guztiz atsegina. Ez dut esanen Mirande bezalakoren baten mugaraino heltzen denik, ez eta gutxiagorik ere, haatik, bizia da horko hizkuntza, aberatsa eta batez ere irakurle gehienontzat gozoa. Edozein eritzik eta judiziok baino askoz gehiago praktikak balio duelakoan baina, liburuetan agertzen den ene eritzizko testurik ederrena traskribatuko dut gure aldizkari honen irakurleen laket- eta plazer betegarri:

"Ibilia naiz ni ere artoaren galdotxak biltzen, erre ditut nik ere arta-bizirrarekin eginadako zigarro ximple eta injenuoak. Eta sentitu izan dut haizearen freskura belarrietan, zanpatu izan ditut belar finak nire gorputz osoarekin. Ikusi ohi ditut, nik ere, kolore horisken etzaleku diren haran lasaiak, eta deskantsatu naiz beroietan bide batez koloredun puntu desberdin bat sortuz. Erreka jostalarietan ere murgildu naiz, egin izan dut iheriketaren itxura beste milaka mutiko eta neskatoen gisa. Entzun dut, makalaren fru-frua, egunsentietan. Begiratu izan diot eguzkiari, laino ttiki bakanak bere hotz diztiratsuekin jaten dituen bitartean.

Anitzetan ere, eta basoak arratsaren zilarrean beltzean grabatzen diren ordu exaktoan, eseri izan naiz teiltuetan.

Eta ilargiak, printze bakartien lez, bere txelo kontzertua eman duen bakoitzean, bere publiko ixilaren artean aurkitu izan naiz beti..."

Andolin Eguzkitza

## Bernardo, Madriletik Euskal Herrira.



Bernardo Arrizabalaga, markinarra, 54 urtetako kazetaria dugu. "Gizon zatar bat naiz", esan digu elkar hizketan hasi baino lehen, baina horrelako "gizon zatar" asko behar dugunez Euskal Herrian, Bernardoren bizitzaren berri izatea interesgarria iruditu zaigu. "Egin"ek Bilbon dituen bulegoetan aurkitu dugu Bernardo. Bere lan mahaian maketak eta idazlan pila agertzen ditu.

—Bernardo, nola izan da Euskal Herrira bihurtze hau?


— Denbora luzean Euskadira bihurtzeko gogoek barrutik kiskaltzen ninduten, mundu horjetatik bueltaka ibili ondoren. Neure bihurtzeko unea orain heldu zait. "Egin"eko zuzendaria den Mariano Ferrer-ek Bilboko "Egin"en delegazioko zuzen-

daritza opatu zidan eta hemen nago, berriro Bilbon.

— "Egin"en sartzeko unean, zalantzak izan al dituzu?

— Bai, zalantza asko izan dut. Lanpostu hau erres-pontsabilitate handikoa da, kazeta berri batentzat batez ere. Gainera espektazio izugarrikoa dago





Euskal Herri osoan, "Egin" egunkariaren zain... Baina, hala ere, nire *herriaren* deia sakonagoa izan da eta etorri egin naiz.

"Nire lurraren deia" esan orduko txantxetan hasiak gara, deiak "Egin"era etorrerazi baitu.

— Nola hasi zinen kazetaritza munduan lan egiten, Bernardo?

— Neure bizitzaren zenbait zehaztasun emango dizkizut. Ni jesuita izandakoa naiz, 20 urtetatik 45 urtetara. Gero alargun batekin ezkondu nintzen eta lau seme-alaba ditugu. Jesuita nintzela, Deustuan "El Mensajero" aldizkariko erredakzio-gidaria izan nintzen. Oñan, "Abside" aldizkari garratza agertu genuen jesuita batzuk eta bai Administralgo aldetik oztopoak izan ere. Aldizkari hau kritikoa zen. Ia une berean, "Gaceta" barruan, bostgarren horrialdea egiten hasi ginen Martin Descalzo, Iraolagoitia, Ventura eta beste idazle batzu. 1960.ean, Bilbon arazo batzu sortzean, Valladolidera joan behar izan nuen.

— Lehen urruntzea izan zen hura...

— Bai, baina zori on samarra izan nuen, hango "El Norte de Castilla" kazetako zuzendaria Miguel Delibes baitzen. Kazeta honetan "El Caballo de Troya" titulu zuen horrialdea idazten genuen Manu Leginetxek, M. Angel Pastor-ek, José Jiménez Lozanok, César Alonso de los Riossek eta nik, beste batzurekin batean. Horrialde hau hango nekazarien defentsa hartu zuen, kazikismoaren kontra. Arrakasta handia izan zuen. Une berean "Gaceta"n "El buzón del padre Arri" izenburuko sail bat egiten nuen. Sail honetan neure pentsakizunak, neure eguneroko gauzak kondatzen nituen. Gero idazlan haik bildu eta liburuxka bat egin zuten: "Diario de un jesuita".

— Noiz etorri zen "jesuita haren" krisia eta Konpainiarekin haustea?

— Valladolid utzi eta berriro Deustuara etortzean. Une haietan zalantza eta tentsio handiak nituen neure barruan eta, laurogei apaizek torturaren eta egun haietako egoeraren kontra Bilbon manifestaldi bat egin ondoren, zalantzak zihurtasuna bihurtu ziren: jesuitak utzi nituen. Hura 1967. urtean izan zen, bereziki. Eta erabaki hura hartu ondoren Bilbotik Madrilerara alde egin nuen. Egun haietan honelako erabaki batek bizitza asko gogortzen zuen, mundu ezagunaren barruan. Orain ez da honela gertatzen. Orain honelako erabaki bat hartzea normala bezala hartzen dute jendeek.

— Eta Madrilen, zer, Bernardo?

— Manu Leginetxek "Teleguía" aldizkaria aldatzeko premia agertu zidan eta bai nire laguntza eskatu

ere. "Teleguía" "Mundo Joven" aldizkaria egin genuen. Bitartean Filosofia eta Kazetaritza ikasi nituen. Gero "Triunfo" aldizkariaren idazkolaren idazkaritza hartu nuen eta bai "Hermano Lobo" aldizkariaren bigarren eta azken zuzendaria ere izan nintzen, "otsoa" orain dela urte bat hil arte. Gerroztik Bilbora etorri arte "Triunfo"n, "Anaitasuna"n eta beste aldizkaritan argitaratu ditut neure lanak, publizitate gaietan lan egiten nuen artean...

— Zure euskara, nolakoa da, Bernardo?

— Euskara beti jakin izan dut, Markinako euskara, baina azken urte honetan euskara batua ikasten egon naiz Madrilen. Nire helburua zera da: euskaraz, erdaraz idazten dudan erdi mailara heltzea, gutxienez. Ez da lan erraza, baina ahaleginak egingo ditut. Euskara batua ikasteak ez du esan nahi euskaldien kontrakoa naizela. Munduan ez dago inor markinarra nik maite dudan eran maitatzen duenik. Madrilen, neure buruarekin euskaraz egiten nuen, bai markinarrez, bai batuaz.

— Zer da zuretzat "euskara"?

— Hizkuntza bat baino gehiago. Gure nortasuna da. Gure zenbait politikari ikustean, Euskadi ez-euskaldun bat lortuko dutenaren beldur naiz.

— Zer diozu, euskal politikariei buruz?

— Politikari askok herriari protagonismoa kendu nahi diote. Euskal Herriak politikari hobeak merezi ditu.

— Abertzalea al zara, Bernardo?

— Abertzale sozialista, zehazki. Bi kontzeptu hauk elkarrekin doaz, nire ustez. Abertzale izateko sozialista izan behar da, nire ustez.

— Zein alderditan zaude?

— Nire lana hobe zerbitzatzeko, nahiago dut alderdian ez sartzea. Nire sinpatiak, halere, ETArantz doaz. ETArari asko zor diogu guztiok.

— Pertsonalki, zer egin nahi zenuke zeure Euskal Herrirantz bihurtze honetan?

— Orain dela denbora gutxirarte, Euskal Herrian egin den prentsa euskal herriaren kontrakoa izan da. Orain, nire lanaren bidez, herriaren prentsari bultzakada bat eman nahi diot eta "Egin" kazetaren helburuak nireak bezalakoak dira. Honengatik etorri naiz.

Bihar kaleratuko da "Egin". Gaur Bernardo lanaz leporaino dago. Elkar-ikuskari amaiera eman behar diogu. Bai Bernardori eta bai "Egin" kazeta osoari geure txaloak opa dizkiegu lerro hauetatik.

X. A.

Bernardo Arrizabalaga euskal kazetari ezagunenetakoa dugu gaur egun Euskal Herrian. "Egin"ek bere Bilboko delegazioko zuzendaritzat aukeratu du. Bernardo abertzale sozialista gisa aurkezten digu bere burua: "Sozialista izan gabe ez da posible abertzale izatea", dio Bernardok gure elkar-ikuskan.

## PROSTITUZIOA (sexual harremanak - 5)

Errepresio sexualari buruz hitz egin genuenean, emakumearen prostituzioa, gizonaren errepre-sioari eskaintzen zaion irtenbide bat dela adierazi genuen.

Baina, batzuk honela diote: "Bere gorputza saltzera prest dagoen emakumerik ez balego, ez zen porstituziorik izanen". Eta izate honen errua, emakume hauen moral txarrean eta bizioan ikusi nahi dute.

Gauzak ez dira honela, eta prostituzioaren izatea, gure gizartearen ondorio bat da, desberdintasunean eta menerapenean oinharrituko gizarte baten beharrezko ondorioa.

### EMAKUME BATEK BERE GORPUTZA SALTZEN DUENEAN

Emakumeak, prostituzioan hasteko erabakia hartzen duenean, estatistikak diotenez, ondoko arrazoiengatik izaten da:

— Maitasun desenganio batengatik.- Neskari, bere bizitza osoa maitasunean zentratu behar duela esan diote. Senargai hartu du, ezkontzeko asmoz. Eta egun batean, senargaiak alde egin du, eta neska bakartatean aurkitu da, bere bizitza triskatuta ikusiz, eta are gehiago bere birjintasuna senargai horri eskaini baldin badio. Batzuk, une honen zokogunean, ematen dute itzulirik gabeko urrats hau.

— Bortxapen baten ondorioz.- Bere birjintasuna bortxaketa batez galdu ondoren, neskak jaso duen trauma, izugarria izan da. Gainera, bere herrian, gertatu zaiona jakiten badute, lotsa ez da bortxatzailearentzat izanen, baizik eta beretzat. Inor da berarekin ezkonduko. Beraz, hirira joanen da, eta han...

— Ume bat ezkondu gabe izaten denean.- Atzeko kasuetan, gainera ondorio bezala ume bat etortzen bada, prostituzioa irtenbide bezala, zenbait girotan nahitaezkoa da.

— Diru beharragatik.- Ikusi dugun kasuetan, psikologi arrazoien ondoan, ekonomi arrazoia ere garrantzi handia dute. Emakumeak, bizibide bat izateko heziketa ukatu egin zaionez, bere gurasoek edo senarrak dirurik ematen ez badiote, egoera larri batean aurkitzen da sarritan. Eta bide bezala, prostituzioa da eskaintzen zaiona. Nahiz eta lan bat izan, (saltzaile, ileapaintzaile, etab.), emakumeak jasotzen duen dirua, etxera gizona ekarri behar duen sariarentzat "laguntza" bat izaten da, baina ez da aski, pertsona bat normalki bizitzeko, eta guttiago

ume bat edo gehiago bere kontura baldin badu.

Beraz, askok ordu libreetan, prostituzioa jotzen dute.

Hauk dira, ba, emakumea prostituzioara bultzatzen duten arrazoiak: moral itxuratia, antisorgailuen gain informazioa ez izatea erabiltzea debekatua egotea, abortuaren gain dagoen zigorra, Estatuak umeen heziketa ez ordaintzea, emakumearen langabezia eta ordaintzen ez den lana... hitz batean, emakumeak sofritzen duen bereizkeria, behin berriro ere. Emakumeak, ez du urrats hau "moral txar baten" ondorioz, baizik eta BEHARRERAZ ematen.

Bizioa? Oraindik ba al dago, "lan" hau atsegin ez egin daitekeela pentsatzen duenik?



Bilboko Cortes kalea : Euskal Herriko puta eta putazaleen biltzetoki nagusia.

## PROSTITUZIO MOETAK

Hemen ere ba dira "klaseak". Tradizio mailan, alde batetik taberna berezietan izaten den merkatalgoa eta bestetik, "kalea". Hauk esan daiteke direla, prostituzio moeta "herritarrenak", eta errepresioaren indarkeria sufritzen dutenak, noski.

Gero, ba dago bigarren maila batean, etxe apainetan egiten dena. Hauzo dotoreetan egoten dira, eta salgai dagoen "materialea" hobeagoa izaten da. Hemen egoten diren neskak, behin zahartzen hasiz gero, behe mailako prostituziora joaten dira normalki. Etxe hauetara joaten den bezeria, diruduna eta diskreta da beti. Polizia, ez da jende hauen bizimoduan sartzen, dena diruz estal baitaiteke.

Hirugarren maila batean, luxuzko prostituzioa dugu. Batzutan, emakume batek bost edo sei bezero finko ditu. Besteetan, agentzia baten bidez konpontzen da arazoa. Normalki, enpresa-gizonen bidaientzat egiten dute lan; baita politikari garrantzitsuentzat ere, Ingalaterran sortu zen eskandaluan ikusi genuen bezala. Gauza hauk, hone-lako "eskandalu" bat gertatzen ez bada, inork ez ditu jakiten... argira ateratzen denean, bati erruak bota (haren gauza balitz bezala) eta besteen izenak gorderik edukitzen dira.

## BURJESERIAK ERABILTZEN DUEN TERAPEUTIKA

Lehenen, emakumeen zerbitzuen bila joaten diren bezeroak, lasai egon daitezke! Haien aurka, errepresioak ez du behinere jotzen.

Prostituzioan, burjeseriak dioenez, errudun bat besterik ez dago: prostituta. Hau da gartzelara eramaten dutena, edo gartzelak baino okerragoak diren "centros de rehabilitación" etara. Berrabiltze zentru hauk, mojen eskuetan daude, eta hauetan erabiltzen den erredentzio sistema, lan esplotatzea izaten da, oso merke ordaintzen den lana...

Ematen dituzten zigorrak, guztiz lege kontrolerik gabekoak dira, eta diotenez, sadismo moeta guztiak erabiltzen dituzte moja "errukitsu" hauek. Prostituta, gartzelatik edo zentru hauetatik ateratzean, bere "lanean" segitzera behartuta dago, beste biderik ez du izaten eta.

Hau, behe mailako prostituzioan gertatzen den gauza da. Gainera, kalean edo tabernetan lan egiteko, prostitutak mila arrisku sufritzen ditu; batetik, "merkatua" oso kontrolatuta dagoelako eta bestetik bezero batzuren sadismoan ez erortzeko, "babeaile" bat hartu behar dute, proxeneta deritzona. Prostitutak, honi eman behar dio jasotzen duen diru guztia, "babes" honen truke, eta proxenetak, nahi duena emango dio beretzat lan egiten duen emakumeari. Proxeneta hauen ekintzak, Penal Kodigoak zigortu egiten ditu. Gero praktikan



benetako "mafia" bat dago eratuta, gauza hauen inguruan.

Azkenik, galtzen ateratzen direnak, beti ahulenak dira, hots, prostitutak. Zaharrak izanen direnean, ez zaie ezer geldituko, eta miseria sakonenean hilko dira.

Burjeseriak, prostituzioa ez duela onhartzen, diosku beti. Hori ez da egia. Eratu duten gizarte honetan nahitaezkoa da.

Diotenez, gizon batek ezkondu baino lehen sexual harremanak izatea, gaizki ez egoteaz gainera komenigarria da. Kontuan edukiz, emakumeentzat hau pentsaezina dela, norekin izanen ditu harreman hauk?; andregaiarekin ez noski... prostitutek erakutsiko diote nola egin.

Emakume ezkondu batek, bere senarra ez den gizon batekin oheratzen bada, adulterioaren lege pisua eroriko zaio. Gizonak, beste emakume batekin oheratzeagatik ez du adulteriorik egiten; beretzat, harreman hau legalak dira. Ez ditu emakume "dezenteekin" izanen, noski!, nora joanen da?; prostitutengana.

Beraz, moral neurri desberdin hauk aurrera eramateko, beharrezkoak dira, alde batetik neska dezenteak, ezkontzeko eta umeak hazteko; eta besterik, prostitutak, gizonen behar extrak betetzeko.

## PROSTITUZIOAREN PSIKOLOGIA

Zer bilatzen du gizonak prostituzioan? Zergatik behar dute gizonak sexual harreman hau? Zer abantail eskaintzen diete?

Batetik, ez dakarkio obligaziorik afektibitate aldetik; gizonak emakumea hartu, bere organoa alokatzen duen maginan hustu, eta gero, beste ardurarik gabe, alde egiten du. Hau da gizonari atsegina, afektibitatea eta sexualitatea aurkakoak sentitzen dituelako. Sexualitatea, behar bat da beretzat, eta maitasuna ere bai; baina maite duen neskaekin ezin du sexual harremanik izan, hori errespetu gabezia izanen litzatekeelako... Bestetan, ez du ezkontzeko gogorik, eta neska bat maite baldin badu, ezkontzeko behar du izan; beraz, prostituta-rekin ez zaio arazo hori gertatuko.

Ezkonduta baldin badago, emaztearekin izaten ditu sexual harremanak, baina helburu bakar batez: Umeak egiteko. Bere emaztea, emakume dezentea denez, ez dabil atseginarekin bila, eta berak, nola proposatuko dio zenbait gauza egitea?, nola egingen ditu emakume honek aho-ernaltze laztanak eta horrelako "zikinkeriak"? Berari berriz, atsegina litzaioke... horretarako daude, ba, "maitasunaren langileak", zerbitzu horik diruaren trukez egiteko, beti prest.

Gure gizarte honetan, dena da salerosgai. Gainera, jakina da, gauza onak garesti erosten direla beti... Objektu bat erostera joaten denez, gizonarentzat ordaintzea eta ondo ordaintzea gainera, merkantziak daukan kalitatearen froga bat da. Segur asko, ordaindu gabe har bazezakeen, ez zuela hainbeste gogorik izanen. Zenbatek janen lukete kabiarrak, nahi adina balego? Aberatsek ez behintzat...

Gizona lasai joan daiteke prostitutarengana. Han, daduzkan konplexuak, atarian utz ditzake. Berdin da, zaharra, lodia, ilerik gabe, itsusia baldin bada. Honek ez du garrantzirik. Dirua badarama, bere iristea guztiz hostatua izanen da.



Negozioaren inguruan sanital azpiegitura eskasa

Gero ere, prostitutak ez dio esanen: "hau da gizona", "hori hobe datorkit", "itxaron pixka bat gehiago"... ez! ez dago gaizki egiteko beldurrik. Prostituta ez da sexu sentikortasuna duen izaki bat, berak, dirua jasotzen badu, magina bezeroaren zerbitzuan jartzen du, eta laster bukatzen badu... hobe!

Eta, agintzeak ematen dion plazerra? Gizon askorentzat, ez da hainbeste sexu harremana egiteko moeta honek edo besteak ematen dion atsegina baizik eta, hamar minutuan besterik ez baldin badu ere, esklabu baten agintari sentitzeak ematen dion plazerra. "Jar zaituz honela", "orain beste aldera", "hankaz gora", "hankaz behera",... eta besteak, eta sana egin besterik ez, dirua jaso nahi badu.

Gainera, bere emaztea beti umeeekin aurrera eta atzera dabil... ia dirua iritsiko zaion, ia eskolara nola dabiltzan, gaixo jarri direla...; bere emazteak Karmele du izena eta itxuraz, normal zamarra da. Hori ez da, filmetan ikusi duen erostimoaren irudiala... Prostituzioan, merkantzia moeta asko dut aurkeratzeko. Ernagarreina aurketzen duena, aloka dezake. Dirua da baldintza bakarra. Gustu guztietarako daude salgai: zuriak, beltzak, argalak, lodiak, sardikoentzat, masokistentzat, pintatuak, pintaturik gabekoak... denetatik dago, gure gizonaren pozeraiko.

Misterioz beteriko mundu batean sartzen da eta ateratzean, zer sentitzen du? Prostitutak, bere sexualitatearen laburkeria, irrigarria eta sinpletasuna erakusten dio, ispilu bat balitz bezala. Hainbeste istori, hainbeste hitz eta pentsakizun sortzen dituen zakil honek, bere beharrak zulo batean, minutu labur batzuetan betetzen ditu. Gizonak, sexualitatearen korapiloa, buruan daramate eta ez organoan. Mitohauste bat da, nolabait, esperientzia. Ez da oso pozgarria gure gizonarentzat hau ikustea: emakumeak, bost axola zaio zakila eta zakilaren jabea nahi duena, lehen bait lehen bukatzea da, eta egiten dizkion laztan hotzek, helburu hori besterik ez dute, "luzatzen ari zara, ba... gehiago ordaindu behar harko didazu". Bizioa?, bai horixe..., sentitzen du tenagatik izanen da; lan egiten ari direla, segur biltartean irakurtzea, jostea eta pianoa jotzea eraz ditudiela. Bezero gehienek, prostituten aurka hitz egiten dute, eta honengatik izanten da, berorren miseria ikusi egin dutelako prostitutaren jokaeran. Honek ez du komeriarik egiten, ordaintzen ez behar zaio.

Aberatsen prostituzioa ez da hain gogorra izaten. Diru asko izatean, magina hutsa alokatu beharrean, sentimentu adierazpena ere erosten dute. Oduan bai egiten dituztela komeria galantak! Azkenez, gizon hauek, benetan harekin egotea emakume hauei atsegina zaiela pentsatzen dute; ispilurik gabeko miseria dugu hau.

## EMAKUME PROSTITUEN BORROKA

Orain arte eramana dutena behintzat, ez da...



— “Jendeak ez badu hau beste lan bat bezala ikusten genitalen mitoarengatik da. Guretzat, berdin da dirua irabazteko besoak edo magina erabiltzea”.

— “Langile bezala zanpa gaitzatela, baina emakume bezala ez. Geure lanean, seguritateak nahi ditugu. Polizia, burjeseria, proxenetak... berdinak dira; denek zurruputzen dute geuregandik. Gure gorputzaren eta diruaren erabiltze librea eskatzen dugu”.

Lyon-ekoek hau errebindikatzen zutenean, feministek eta iraultzaileek ez zituzten planteiamendu hau onhartu. Arrazoa: ez zutelako arazoaren muina aurkitzen, eta noski, prostitutak estatu bat exigitzea, nolabait, prostituzioa fenomeno bezala onhartzea da.

Gu ere, ez gaude ados Lyon-ekoen planteiamenduekin. Ez dugu uste prostituzioa, beste lan bat bezala ikus daitekeenik.

Beste lanetan, lantegian adibidez, geure indarra saltzen dugu, hala da. Baina, esaten duguna, gure lanaren fruituak gurea izan behar duela da. Pentsatzen dugu, beharrezkoa dela merkantziak produzitzen jarraitzea, baina irabaziak langileentzat izanik. Prostituzioan, emakumearen gorputza da merkantzia bezala erabiltzen dena eta honekin ez gaude ados. Emakumea ez da merkantzia bat.

Norbera bere gorputza saltzeko esku dela? Gezurra. Prostituzioa, fenomeno sozial bat da, eta ez pertsona biren erabakia. Emakumeak, bere gorputza saltzen badu, ez da libre delako. Lehen ikusi dugun bezala, gure gizarte matxistaren ondorio bat da, beharrezko ondorio bat. Eta honekin bukatzea, behar beharrezkoa dugu emakumeok, gure pertsona duintasuna eskuratzeko bai eta gizonarena ere.

Iraultzaile garenez, pertsonen artean dauden harremanak ere aldatu nahi ditugu, eta sexual harremanak, besteak bezala, ez dira salerosgai.

Hori bai! Lyon-eko prostituten jarrera esplikagarria iruditzen zaigu. Normala da, gauza bere sarkontasunean ez ikustea, lehenengoz. Eta exigitzen dutena, funtsean, haienganako dagoen mesprezua-rekin bukatzea da. Arrazoa dute honetan. Prostituzioa onhartzan dutenek, eta zerbitzuak erabili ere, gero prostitutenganako gutiespena adierazten dute, eta horri irrigarria eta haserragarria deritzogu.

Gero ere, berriz gure moral itxuratia. Nik ez nuke prostituzioa, sari baten trukez lantegian egiten den lanarekin berdinduko. Baina ezkontzarenkin, gaur egun egiten dugun bezala, bai.

Zer da ezkontza gure egunetan? Beste gauzen artean, emakumeari, bere bizitza ekonomikoki konpontzeko, eskaintzen zaion bide bakarra.

Zer egiten du neska batek, mutil honekin diruz ondo dabilelako ezkontzean? Ez du bere gorputzaren zati bat, diru pixka batengatik, minutu batzutarako alokatzen. Egiten duen salerosketa hau da: Bere gorputza eta pertsona osoa senarrari ematen dizkio, hil arteko seguritate baten trukez. Gehiago ematen du, gehiago jasotzen du... bestalde, kontratua, funtsean berdintsua da.

izan prostituzioarekin bukatzeko helburuaz.

Prostituten borroka garrantzitsuena, Lyon-ekoek eraman zutena izan da. Haien gidari Ulla-k liburu bat argitaratu zuen arazoaren gain (1).

Emakume hauek eskatzen dutena, prostituzio librea da.

Defendatzen dutena hurrengo hau da:

— “Bakoitza, gure gorputzaren jabe garenez, gorputz honetaz nahi duguna egiteko libre izan behar dugu”.

— “Prostituzioa, beste edozein lan bezain errespetagarria eta beharrezkoa da. Exigitzen duguna, gizarteak egia hau onhar dezala da”.

— “Beste lanetan ere, jendeak bere indarra saldu egiten du. Prostituzioaren gain, arazoa berdina da. Lan merkatuarekin bukatu arte, beste langileak bezala, guk baldintza hobeto eskatzen ditugu”.

— “Gure lana, lantegietakoa baino hobeto da. Diru gehiago irabazten dugu, orduak libreagoak dira, eta geure burua egiten dugunetik at edukitzeari oso erraza deritzogu, ez da kontzentrazioerik behar duen lana eta”.



Emakumeak, bere independentzia ekonomikoa lortzen ez duen bitartean, prostituzio "legala" edo "ilegala" praktikatzera behartua egonen da.


#### GAZTE ETA UMEEN PROSTITUZIOA

Ekonomi krisisa sakontzen ari dela eta, gazte eta umeen prostituzioa, gurasoen ezagueraz gehienetan, ugaritzen ari da. Langabeziaren ondorioak, lapurketa eta beste moetak "delinkuentziarekin" batera... Hemen ere, diru beharra dugu arrazoiak. Askorentzat, emakumea, objektu ezagunegia eta piriirik gabekoa bihurtu da. Beste gauza ernagarrigo bat behar dute, bere sexu jokuetarako. Gazteak eta umeak, nahiz neskak edo mutilak izan, ondo ordaintzen den merkantzia bat da.

Umeak, normalki, gurasoek alokatzen dituzte, bai "sesio" batean erabiltzeko edo filmeak egiteko. Bestetan, alokatu beharrean, saldu egiten dituzte. Hauk bai direla, gizarteko azken biktimak, inongo defentsarik gabekoak.

Gazteak, batzu bere kontura hasten dira, baina denbora bat "ofizioan" iragan ondoren, hauek ere inguruaren aurkako "babesa" behar izaten dute, esplotatzaile baten menean jarritz. Bere gorpuzak, laster, triskatuak izaten dira, bai fisiko eta bai psikologiko aldetik ere. Gehienek droga erabiltzen dute ihes egiteko; ohitura hartu ondoren, diru gehiago behar dute droga erosteko, eta horretarako,





Beti ere lagunaren zain

ordu extrak egin, gorputza, guztiz xehatuz. Azkenez, gehienek beren burua hil egiten dute, lehen inguruak ez baditu haien bizitzak itzali.

### GIZONEN PROSTITUZIOA

Moeta hau ere, gizonarentzat eratuta dago. Bezeroa, homosexual aberatsa izaten da. Zerbitzua prestatzen duena, normalki, homosexual behartsua. Gure gizartean homosexualitatearen aurkako errepresioak sortzen du prostituzio honetarako "materiallea".

Homosexual bezala ezagutua den bat, lantegietan ez dute onhartzten eta, toki guztietatik bota egiten dute. Zer irtenbide geratzen zaio bizitzeko? Prostituzioa.

Baina noski, homosexualitatea, emakume eta gizonen artean, dirudien baino askoz ere zabalagoa da. Gai hau ere, lan berezi batean aztertzea beharrezkoa zaigunez, hemen, prostituzioari dagokionean besterik ez dugu ikusiko.

Gizon homosexual gehienek bizimodu doblea daramate. Batetik, publikoa, bere emazte, seme-alaba, lan errespetagarria etab. eta bestetik, sekretua.

Bere sexualitatea bizitzeko, bide bat besterik ez, prostituzioaren zerbitzuak erosi, noizbehinka.

Eta emakumeentzat zerbitzurik prestatzen duen gizonik ez al dago? Bai, baina oso gutti eta kasu oso berezietan. Gainera, sozialki, ez da gizonaren prostituzio bat bezala ulertzen. "Putza" hitza, emakumeentzat erabiltzen da, eta ez zaio gizon bati, behinere "puto" esaten.




Harantz- honantzka

Gainera, emakumearengan kritikatzten dena ez da hainbeste bere gorputzaren alokatzea, baizik eta sexual harremanak eramatea. Emakumeentzat, beste moral neurri bat erabiltzen denez, sexualitatea bizitzen badu ezkontzatik at, "puta" deitzen zaio.

Prostituzioan, bezeroa gizona baldin bada, normala dirudi. Baina emakumea baldin bada, honetz gainera "puta" ere, bera izanzen litzateke; eta bere gorputza saltzen duen gizona, "aprobetxatu erne bat". Erakusleihen alde batean edo bestean egon, beti esanzen digute emakumea dela "puta" eta gizona "normala". Horrela kontsolatzen badira...

Itziar Urtasun



## IPAR EUSKADIKO EGUNA TRINITATEKO ENPARANTZAN

### Anaitasunaren Zuzendariari:

Joan zen amarrean gurekin izan genituen beste aldeko anaiak. Gazte txaranga eta abeslari talde bat osatzen zuten artistiko aldetik enbajada. Baina bai eta agiri batzuen bidez beren problematika politiko eta soziala azaldu zizkiguten.

Neretzat presentazio edo aurkezpen onen gauzarik interesgarriena euskararen bearra somatzea izan zen. Bai, EUSKARAREN BEARRA. Ego eta Ipar aldea artuemanetan jartzeko, erriak bide bakarra du, euskara.

Beti esan dugu, euskara izkuntza kulturala izan nahi baduela, bearrezkoa egin bear dugula. Eta ona omen, ekintza batetan beintzat, bearra au. **BESTE ALDEKOEKIN ARTUEMANETAN JARTZEKO BEARREZKOA DUGU EUSKARA.**

Ez dakit, antolatzaileak, edo eta alderdi, baz-

kun eta euskal mugimenduak gaia onetaz jabetu diren ala ez. Orregatik dei bat bidali nai niezaieke. Beste aldekoekin geiagotu egin bear dira artuemanak. Lenbiziko uneetan gauzak zailak izango dira; bai antolatzeko oztopoen arrazoiagatik eta baita jende artean izango duen arreragatik, eskaxa ziur asko. Alaz ere, bide onek dadukan garrantziaz kontzientzia artu bear dugu. Ipar Eta Egoaldeko enbajadak bearrezkoa dute euskara bere Ipar eta Ego euskadiko ibilaldietan.

Beraz bide au baztertzea eta ez kontsideratzea benetako utsakeria litzateke. Aldiz, bide au onartzea eta zabaltzea azertua izango delakoan derizait.

**EGOALDEKO EUSKALDUNEK** antolatu ditzagun **IPAR ALDERA** joateko enbajada kultural, politko eta sozialak. **IPARALDEKO EUSKALDUNEK** antola ezazue **EGOEUSKADIRA** etortzeko enbajada kultural, politiko eta sozialak.

BAIA

### Anaitasuna jaunari:

Azken **ANAITASUNA**n ba dirudi zenbait kritika gogor egiten diozuela **PSO**eri. Horien kontra ekitea erabaki al duzue?. Horiei zaunkaka hastea edo basamortuan hitz egitea gauza bera da, horien artean ale bat ere ez duzue arkituko erantzungo dizuenik zeren ia denak ez dute euskararik ezagutzen. Jendeari biblioteketan edo, komeniko litzaioke gerra denborako **El Socialista** egunkaria ikustea, beren orduko joera nola zen ikus dezaten.

Bestaldez **EGI-B/3** Taldeak argitaratu duen oharra minez irakurri nuen. Euskararen izenean, beti erdara batuaz arrazismoa eta memelkeriak defendatzen ari. Nork esan dezake sentsu onekoa bada, panfleto horretan agertzen den joskera faxista eta arrazista **PNV**ren politika dela? **Espainol** faxistak egin duten textoa dirudi. Jakin dugunez eta ondo ganera **PNV**ren **EGIk** ez du horrelako paperik inon botatu, polizia edo eskuin muturrekoak, abertzaleak zirikatze bota zituzten **EGIk** izenarekin izenpetuz gero.

Hori orduan garbi geratu da nor izan den jakin dezagun **EGIk**

ez du ezertarako ere paper horretan parterik hartu.

**EAJ**ren gudari batek

### Zuzendari jauna:

Ohorezko zaigu, datorren urrilaren 9-an Bilbon egingo dan "Kili-Kili" egunaz zeaztasun batzu zuri igortzea. Bertara nai duten ume guztiak jakitun ipintzeko.

Alfabetatzen diarduten ume euskaldunon eguna urtero Euskalerriko eskualde batean ospatzeko asmoa dugu. Bilbon asten gara, len esperientzi bezala eta "Kili-Kili" bera ere Bilbon jaio zelako.

Eskualde bakoitzean antolaketak-lana aurrera doa. Ala ere, berri au zabaldu gura dugu, bertara joateko direnek garaiz jakin dezaten zer eta zelan izango den.

Antolaketa aurrera doa. Datorren ilaren 9-an, igandean, zortzi mila ume baino geiago batuko direla ustetan gagoz, Bizkai-ko uriburuan. Asteko guztiak Bilbo-ko Arenal-ean bildu eta andik "Feria Internacional de

Muestras"-era (eguraldi txarra baltz, badago aterpea an).

Kili-Kili

Bilbon Irailak 2, izandako Amnistiaren aldeko azken manifestaldirako ondoko komunikatua atera genuen eta **DEI**ari bidali, baina ez zigun argitaratu suposu daitezkeen hobespenez. Horregatik, zuei bidaltzen dizuegu, baliorik ez duela galdu uste dugularik.

Bilbon 77.9.1.

"Arenaleko manifestaldiaren alderdi arteko prestakuntza bileretan partaide izan garenez, eta ateratako komunikatuaren sinatzaile garenez, ondoko puntuok jakinerazi nahi ditugu:

— Oraingoan manifestaldi honen antolatzaileek egiazko Amnistiaren puntu guztiak hartu dituzte kontuan. Ba zen garaia. Baina, halaz ere, garrantzitsuena kanpoan utzi dute: Gorpu Errespiboen desegitearena. Kanpoan uzte hau oso oker grabea dela uste dugu. Ez baitugu sakone-



an ezer konpontzen, alde batetik ateratzen baditugu, eta beste aldetik, sistema burjesa zalantzan jartzan dutenak, gorpu horiek herriarengandik sakabanatzen badizkigute. Eta hau gertatzen ari da jadanik, nahiz eta Gortetean dabilten alderdiek, edota ibili nahian daudenek, askatasuna ba dagoela esan.

— Manifestaldiak langileria-  
ren burruka bidea dira, beraren  
nahiak ozenki aldarrikatzeko eta  
burjeseriaren zapalkuntza salha-  
tzeko. Burjeseria berorrek langi-  
leriari ikaragarritzko murrizteak  
ezartzen dizkio legeztapenaren  
truke. Eguna, ordua, tokia, kont-  
signak eta guzti guztia bilaka-  
tzen da negoziagai, eta langilea  
azken ordurarte geratzen da bai-  
men famatuaren zain. Eta, orain  
arte izan den bezela, langileriak  
aurea hartzen badu, burjeseria-  
ren negoziaketa aginduen kontra  
jokatuz, orduan, "minoría extre-  
mista" bat izaten da, eta burje-  
seriak grisen eta zibilen bortxa  
basatiaz erantzuten du. Baina,  
orain arte lotu dugun guztia "mi-  
noría extremista" horri esker  
dugu, gero ta gehiago handitzen  
joan delako.

Manifestariak, polizien era-  
soez defendatzeko, harriak eta

barrikadak erabiltzen dituztene-  
an, orduan, defentsa horri "vio-  
lencia callejera" deitzen diote.  
Eta dagoen bortxa bakarra burje-  
seriak bere interesen ordena zain-  
tzeko erabiltzen duen bortxa  
orokorra dela argi esan nahi  
dugu.

Guzti horregatik bultzatzen  
dugu edozein manifestaldi, eta  
oraingo hau ere bai. Baina ez gau-  
de ados legezatzearen beharrare-  
kin, nahiz eta honek jende gehia-  
go etortzea posible egin. Zeren,  
murrizpenez gain, bakoitzak bere  
siglak bultzatzeko baizik ez baitu  
balio, eta herriak inposatzen bai-  
tu legetasuna.

— Beste kontu bat da 500  
pertsoneko "Cuerpos de Orden"  
horik egitea, gobernari jaunak ha-  
la eskatu duelako. Onhartzen du-  
gu bai, Aiuta Zerbitzu bat, bada  
ezpadan, eta baita ere manifesta-  
rien defentsarako pikete defen-  
tsibo batzu, manifestariak izan  
behar baitira defendatuak bur-  
jes poliziaren erasoengandik, eta  
ez, alderantziz, manifestarien oi-  
hu eta eskabide bidezkoengandik  
burjesen ordena defendatu.

Herriak sarritan frogatu du  
ez duela holako artzainen beha-  
rrik gizalegez ibili baita beti. Bai-  
na oraingo honetan 500 tipok

megaphonoen abantailaz, herriari  
zer oihukatu behar duen esango  
diote, psikhologikoki mugatuz  
eta zapalduz. Eta oso herritarrak  
diren kontsignak "zilegien" or-  
dez ixilerazi nahiko dizkiote.  
Adibidez: "ETA, herria zure-  
kin", "Independentzia", "Txaku-  
rrak barrura", eta abar. Herriak  
Apalarengatik Kontsulatu Fran-  
tsesera joan nahi badu, frena-  
tzen saiatuko dira. Ez gaude, be-  
raz, manifestaldia prestatu den  
moduarekin.

Beste alde batetik, Donos-  
tiako manifestaldiaren antola-  
kuntzan, ia ahobatez erabaki du-  
te "Cuerpos de Orden" ez egitea.  
Bilbokoaren prestakuntzan, al-  
diz, baietz esan dute ahobatez.  
Zer dela eta hau? Gipuzkoako  
herria ez al da hain engainarra-  
za? Klaukiazioa zer den argi  
erakusten digute alderdi horiek  
joku bikoitz horren bidez.

GORPU ERREPRESIBOAK DE-  
SEGIN ETA "Cuerpos de Or-  
den" ERE BAI.

GORA EUSKADI INDEPEN-  
DENTEA ETA KOMUNISTA.

Langile Abertzale Iraultzaileen  
Alderdia. LAIA-ez.

## DONUTS-EK EUSKAL ALBUMAK ERREGALATZEN

Ezagunak ditugu, hobe ez, DONUTS izeneko  
erroskilak. Haurrek bai gutienez. Oraintsu COINA-  
SAK, Donuts-en fabrikatzaileak, euskaraz eta erda-  
raz 100.000 album argitaratu berri ditu, Bizkaiko  
haurren artean, publizitate gisa banatzeko.

Album hauetan Euskal Herria, beronen pai-  
saia, bizilagunak, hiriak, etxeak, animalia eta lan-  
dareak azaltzen dira, kolorezko kromoez hornitze-  
ko. Gai hauetan 300 euskal hitz agertzen ditu al-  
bumak, umeek, irudi bidez, beren euskal hiztegia  
aberats dezaten.

Bizkaiko Donuts banatzaileek, halaber,  
250.000 pezeta jarri dituzte albuma osa eta euska-  
ra pixkat ikasi duten haurren artean, saritan, ema-  
teko.


Exenplu imitagarria eta ikastolen eta euskal-  
dun guztion jantokietan ongi kontutan edukitze-  
koa. Kondizio berberetan, euskaldunok, azken ba-  
tez, euskaraz tratatzen eta onhartzen gaituztenak  
onhartu behar ditugu.

## ALBUM DE EUSKARA

CONOCE EUSKAL HERRIA



donuts



Irailaren 25ean PNVec bere eguna ospatu digu Aralarren. Zorionak eta urte askotan, herkideok!

Hartara joateko deia zabaltzeko karteletan **ALDERDI EGUNA** jartzen zen. Eta esaldi hori, euskararen sen pixka bat duen edozeinek ba dakusa gaizki idatzirik dagoela. **ALDERDI EGUNA**, mugagabe dagoenez gero, edozein alderdiren eguna izan daiteke; euskaraz, kasu, gizon eguna gizon guztien edo eta edozein gizonen eguna da, pertsona konkretu batena denean, gizonaren eguna esaten baita. Horrelaxe itzuli dute, kasu, Gipuzkoako Amnistia-  
ren aldeko Gestorak "Día del Gudari Muerto", **HILDAKO GUDARIAREN EGUNA**.


Arrazoi berberetatik, beraz, PNVren eguna **ALDERDIAREN EGUNA** jarri beharra zuketena, baina gauza jakina da, dena dela, PNVkoek euskarara kontuan egiten duten guztia, Don Juan Ajuriagerrak oraintsu **PUNTO Y HORA** (no 53, 24. hor.) argiro esan duenez, edozein akademia eta herri usarioen gaitetik ere **ONGI** dagoela. Tira ba! Astabelarri sursum concordatariak beraienzat.



**LANKIDE AURREZKIAREN ZOZKETA:**

# **100 IKUZTAILU GUZTIZ AUTOMATIKO**

**Sorteo de Caja Laboral: 100 Lavadoras Superautomáticas.**





**CAJA LABORAL POPULAR**

**LANKIDE AURREZKIA**

**Informa zaite gure lantokietan.**

# Gipuzkoa besterik ez dugu gogoan hargatik Probintzial da gure izena.



Gure probintziaren aurrerabidean gero eta lankide sutsuagoak izateko prest gaituzu: bai nekazaritzan, bai industrian, bai merkatalgoan, bai komunikabideetan,... edozein alorretan. Gipuzkoan bizi maila goratzeko bidea gerta litekeen guztian.

Probintzial izena daramagu eta gipuzkoar aurrerabidearen alde ari gara ahaleginetan beti ere.

